

**Bartolome Olaetxea**

**DOTRINA KRISTIANEA**

Fitxategi hau “liburu-e” bildumako alea da,  
liburu elektronikoen irakurgailurako prestatua.

Liburu gehiago eskuratzeko:

<http://armiarma.com/liburu-e>

Bertsio informatiko honen egilea: Josu Lavin; Urkiola,  
1-1C 48990 - Getxo (Bizkaia)

<http://klasikoak.armiarma.com>

Egileari buruzko informazioa:

<http://zubitegia.armiarma.com/?i=714>

# **DOTRINA KRISTIANEA**

*D. BARTHOLOME* **Olaetxea** Laukarizko Kureak bere Elesatean Jai Domeka guztietan expliketan dabena legez.

OFREZIETAN, ETA **dediketan** deutso *D. Nicolas Antonio Landazuri*, Laukarizko, eta Bilboko Elezetako Benefiziau, eta leen Begoñako, eta orañ **Jandone Kueko Kura Jaunari.**

Inprimadu da Bitorian bear direan lizenzia guztiakaz, Thomas Robles ta Navarro en etsean.

Liburutxu onek daukazan Kapituluatarik bat, nai bat irakurri, edo enzuten dan bakotxean irabazten dira 40. eguneko Induljenziak alan dauko esanik, eta konzedidurik Calaorra eta Calzadako Obispo Jaun Don Andres Porras, eta Temes en mesedeak Plazenziako Urian Abenduaen ogeta seigarrenean, urte 1763.

Lotsaz isten bada,

esan baga pekatua,  
eztago arenzat Zerurik,  
ezpada infernua.

Eriotzako Orduan gatx  
da Konfesetea,  
Leenago akorda zaitez  
pekatari tristea.

Pekaturik urteteko,  
orañ negar egizu;  
bada geroko damuak  
balioko ezteutsu.

## **EGUNEANGO KRISTINAUAEN EXERZIZIOA**

*Iratzartu, ta bertati zer egin beardau Kristinauak?*

Krutzeaan Señalea, eta esan: Jesus Maria Josepe:

neure Jangoikoa, nik emoten deutsut neure biotza.

*Jagi, ta janzi ezkeru, zer egin bear dau?*

Ur bedeñkatua artu, ta jarririk belauniko esan:  
Krutze + Santeaen señaleari gaiti geure + arerioetarik  
libradu gaituz geure Jauna, + ta Jangoikoa.

Aiteaen, + ta Semeaen, ta Espiritu Sautuaen ize-  
nean Amen.

Erdu, Espiritu Santu Jauna, zeure fielen biotzetara,  
eta erreserbi egizu gure zeure amorezko sua.

Neure Jangoiko laztana, sinisetandot firmemento  
zeuk esan dozun guztia, adoretan zaitut, eta espere-  
tandot zeugan: ametan zaitudaz neure biotz guztirik,  
damudot, Jauna, izañik zeu añ ona ofendidu zaituda-  
zalako.

Graziak emoten deusudaz, neure Jaun andia, kria-  
du nozulako, Kristinau egin, eta Jesu-Kristoen odol  
prezioso agaz erredimidu nozulako, orañ artean kon-  
serbau, eta gorde nozulako, eta orañ giño Zeure esku  
Santuetarik artu dodazan benefizio, mesede, ta onda-  
sun guztia gaiti.

Ofrezietan deusudaz, Jauna, gaurko neure pensa-  
mentu, berba, akzioe, trabaju, eta neke guztiak,  
Zeure seme Jesu-Kristo geure Jaunaen Pasiñoeko  
merezimentuakaz batera.

Proprietandot, leenago galdutea neure bizitzea,  
zeu ofendidu baño. Gorde nagizu gatx guztietarik, eta

emon egidazu Zeure grazia, Zeure gustora egiteko egun onetako, obra, eta akzinoe guztiak, au erre gututen deutsut, Jesu-Kristo geure Jauna gaiti, Ama Birjina Santissimea gaiti, eta Zeruko Santu, eta Santa guztiak gaiti alan izan della.

## **PATERNOSTERRA**

Aita gurea Zeruetan zagozana: santifikadu bedi zure izena betor zure erreñua gugana egin bedi zure: borondatea zelan Zeruan alanlurrean, emon egiguzu gaur geure eguneango ogia, eta parkatu egiguzuz geure zorrak geuk geure zordunai parketan deutseguzan legez: eta itxi ezeiguzu jausten tentaziñoean: baia libradu gagizuz gatxerik. Amen.

## **ABE MARIA**

Abe Maria, graziaz betea Jauna da zugaz, bedeñkatea zara zu andra guztien artean, eta bedeñkatuada zure sabeleko frutua Jesus. Santa Maria Jangoikoaen Ama erregutu egizu gu bekatariok gaiti orañ, ta geure eriotzako orduan. Amen. Jesus.

## **KREDOA**

Sinistetandot Aita Jangoiko guztiz poderoso, Zeruaen, ta Lurraen Kriadoreagan: eta bere seme bakar Jesu-Kristo gure Jaunagan, zeñ sortuzan Espirituaen obraz, ta graziaz: Jaiozan Maria Birjinea ganik: padezidu euan Ponzio Pilatosen podereaen bean, izan zan Kruzifikadua, il, ta enterradua, jatsizan infernuetara; eta irugarren egunean biztu zan ilen artetik: igo eban Zeruetara, eta dago jarririk Aita Jangoiko guztiz poderoso en ezkomatati: arik etorrikoda biziak, eta ilak juzgetan. Sinisetandot Espirituagan: elexa Santa Katolikea, Santuen Komuniñoa, pekatuen parkaziñoa aragiaen erresurreziñoa bizitza betikoa. Amen.

## **SALBEA**

Salbe Erregiña miserikordia en Ama, bizitzea, ta dulzurea, Salbe esperanza geurea. Zeuri deiez gagoz Ebaen ume desterraduok. Zeu gana gagoz zizpuruz, sentimentuz, ta negarrez negarrezko balle onetan: ea bada Abogada geurea, biortu egizuz gugana zeure begi miserikordiazko orrek, eta desterruau igarota erakutsi egiguzu Jesus zeure sabeleko frutu bedeñkatua. O Klementissimea! O Piadosa! O Maria Birjina gozoa! Erregutu egizu gugaiti Jangoikoa en Ama Santea, digno izan gaitez. Kristo en promesen. Amen.

# JANGOIKOEN LEGEKO MANDAMENTUAK DIRA AMAR

*Lelengo irurak Jagokaz, edo pertenezietan jakaz Jangoikoaen onreari, eta beste zazpirak proximoaen probetxuari.*

Lelengoa, Jangoikoa ametea gauza guztien ganean.

Bigarrena, bere izen santuagaz ez juramentu banoak egitea.

Irugarrena, Jaiegunak santifiketea.

Laugarrena, Aita, ta Ama onretea.

Bostgarrena ez iñor iltea.

Seigarrena, aragizko pekaturik ez egitea.

Zazpigarrena, ez ostutea.

Zorzigarrena, testimonio falsorik ez ezartea, eta guzurrik ez esatea.

Bederatzigarrena, proximoen emazterik ez desee-tea.

Amargarrena, besteen ondasunik ezdeseetea.

Amar Mandamentu onek sartuten dira bitan.



Jangoikoa serbidu, ta amadu gauza guztien gantzi. Eta geure proximoa geure buruak legez. Amen.

## **ELEXA SANTAKO MANDAMENTUAK DIRA BOST**

Lelengoa, Domeka, eta Jaiegunetan meza osobat  
enzutea.

Bigarrena, urtean beñ edolabere Konfesetea, edo  
leenago eriotzako peligrurik bada, edo komulgauko  
bada.

Irugarrena, Pazko erresurreziñokoetan komulge-  
tea.

Laugarrena, elexa Ama Santeak aginduten dabe-  
nean barau egitea.

Bostgarrena, Amarrenak, eta primiziak ondo page-  
tea.

## **FEDEKO ARTIKULUAK**

*Dira Amalau Lelengo zazpirak pertenezietan, edo  
jagokaz Jangoikotasunari: beste zazpirak Jesu-Kristo*

*geure jangoiko, eta Gizon egiazkoaen humanidade santuari.*

*Jangoikotasunari jagokazanak dira onek.*

Lelengo, Sinistu Jangoiko guztiz Poderoso bakar bategan.

Bigarrena, sinistu, dala Aitea.

Irugarrena sinistu, dala semea.

Laugarrena, sinistu, dala Espiritu Santua.

Bostgarrena, sinistu, dala Kriadorea.

Seigarrena, sinistu, dala Salbadorea.

Zazpigarrena, sinistu, dala Glorifikadorea.

*Umanidadeari, edo Gizatasunari jagokazanak dira onek.*

Lelengoa, sinistu, Jesu-Kristo geure Jauna Gizona dan partez Sortu zala Espiritu Santuaen obraz, ta graziatz.

Bigarrena, sinistu, jaio zala Santa Maria Birjinea ganik, zala Birjina Semea jaio artean, jaiotzean, eta jaio ezker.

Irugarrena, sinistu; artu ebalari eriotzea, ta pasiñoa, gu bekatariok salbetearren.

Laugarrena, sinistu, jatsi zala infernuetara, eta atera zituzala bere etorrera Santuaen begira egozan Guraso Santuen arimak.

Bostgarrena, sinistu, irugarren egunean ilen arte-rik biztu zala.

Seigarrena, sinistu, igo ebala Zeruetara, eta dago-ala jarririk Aita Jangoiko guztiz Poderosoan ezkomatati.

Zazpigarrena, sinistu etorrikodala biziak, eta ilak juzgetan. Esanguradau, ze emongo deutsela onai gloria, bere Mandamentuak gorde zituelako, eta deungai betiko penea gorde ezzituezalako. Amen.

## **KONFESINOEA**

Ni bekatariau Konfesetan najako Jangoiko guztiz Poderosoari, Santa Maria beti Birjineari, San Migel Angeruari, San Juan Bautisteari, San Pedro, eta San Pablo Apostoluai, Santu guztiai, eta zeuri Aita espiri-tual orri, egin dodalako pekatu pensamentuagaz, ber-beagaz, eta obreagaz: neure erruz, neure erruz neure erru andiagaz: Orregaiti erregututen deusat Santa Maria beti Birjineari, San Migel Angeruari, San Juan Bautisteari, San Pedro, eta San Pablo Apostoluai, Santu guztiai, eta zeuri Aita Espiritual orri, erregutu deiozula nigaiti geure Jaun, eta Jangoikoari. Amen.

# AKTO KONTRIZINOEKOA

Neure Jesu Kristo Jauna, Jangoiko, ta Gizon egiazkoa, neure Kriadorea, eta Erredentorea; Zu zareana zarealako, eta ametan zaitudazalako beste gauza guztiak baño geiago: damudot, Jauna, neure biotz guztirik zeure Majestadea ofendidua: arzendot propositu firmea, ez geiago pekaturik egiteko, eta apartetako zeure ofensako okasiñoeguztietarik, eta konfesetako, eta emoten deusten penitentzia kunplietako, ofrezietan deustudaz, Jauna, neure bizitzea, obrak, eta trabajuak neure pekatuen satisfaziñorako, eta daukat Konfianza Zeure ontasun, eta miserikordia infinitoagan, parkatuko deustazuzala, Zeure odol prezioso, Pasiñoeguztia, eta eriotzeagaiti, eta emongo deustazula grazia, emendetako, eta perseberetako neure eriotzako ordu artean. Amen.

*Goxean, egerdian, ta arratsean essateko, Elexeak latin essaten dabena, emen euskeraz.*

*Angelus Domini, &c.*

Angeruak barri onak Ama Birjineari emon, eta Espiritu Santuaen graziaz semea bere sabelean Sortu zan, Abe Maria.

*Ecce Ancilla Domini, &c.*

Ara Jaunaen esklabea, Zeure berbeagaz batera nigan egin bedi. Abe Maria.

*Eta Verbum Caro, &c.*

Jangoikoaen semea Gizon egin zan, eta gure artean bizi izanzan. Abe Maria.

*Jangoikoaen Ama Santea gugaiti erregutu egizu.*

*Kristo en promesen digno egin gaitezán.*

## **ORAZINOEA**

Emon egiguzu, arren, Jauna, geure arimetan Zeure grazia; Angeruak barri onak ekarri, ta Kristo Zeure Semeaen enkarnaziñoa ezautu dogunok bere Pasiñoa, ta krutzeagaiti Erresurreziñoeko gloriara eroanak izan gaitezán. Amen.

*Erlojuak jotén dabenean Zer essan bearda?*

Guraneukez, Jauna, falta dodazan orduok Zeu Serbietan igaro, alan pekatuan jausten ez egidazu itxi. Abe Maria.

*Bearren bat asten danean. Zer esan bearda?*

Neure Jaun, eta Jangoikoa, nik ofrezietan deutsut orañ egiten noean trabaju au, ezarri egizu Zeure bendiziñoe Santua. Guraneuke leenago neure bizitzea galdu, Zeu ofendidu baño. *Paternosterra eta Abe Maria.*

*Ondo da, aldaianak, egunean beñ meza enzutea?*

Da deboziñoe guztietarik andiena, eta oneena. *Jaten asi baño leenago Zer essan bearda?*

Neure Jaun, eta Jangoikoa, erdu, eta bedenkatu egizu nik orañ artuten noean jateko au, eta izanbedi zeu serbietako, eta alabetako.

*Benedicite.*

*Dominus nos, et ea quesumus sumpturi benedicat dextera Christi, in nomine Patris, et Filii, et Spiritus Sancti. Amen. Paternosterra eta Ave Maria.*

*Jan exkero, Zer esan bearda?*

Neure Jaun, eta Jangoikoa, nik emoten deustudaz graziak, emon deustazun jatekoagaiti, eta alan izanbedi Zeu serbietako.

*Tu autem Domine miserere nobis.*

*Deo gratias.*

*Agimus tibi gratias, Omnipotens Deus, pro universis beneficiis tuis qui vivis, et regnas in secula seculorum. Amen.*

*Fidelium Anime per misericordiam Dei requiescant in pace. Amen. Paternosterra, ta Ave Maria.*

*Arratsean Zer egin bearda?*

Afaldu baño leenago ezelanbere albatedi errosarioa Ama Birjina Santissimeari Sosiguz errezau.

*Eta oean sartu baño leenago Zer egin bearda?*

Ur bedeñkatua artu, eta jarririk belauniko, esan Krutze santeaen, &c. Goxean legez an dagozan orazi-noeakaz, eta onek bere.

O Jangoikoaen Ama Santissima Señora graziaz betea, eta pekatari guztien anparua, artu nagizu Zeugana, asistidu egidazu; arren ez nagizu desanparau neure eriotzako orduan.

*Gero egingo da examiña konzienziakoa, ekarten dituzala memoriara, edo gogora egun atan egin dituzun falta guztiak, pensamentuz, berbaz, obraz, omisi-ñoez, eta inori exenplu deungea emonagaz, eta akabau akto. Kontrizinoeko bategaz.*

Neure Angeru goardakoa, lagundu egidazu, eta gau onetan gorde nagizu Jesus, Maria Josepe Sokorri-

du nagizu, Jangoikoak emon deigula bere grazia, eta gero gloria. Amen.

*Oera Sartu Orduan Zer egin bearda?*

Ur bedeñkatua artu, eta egin Krutzea bekokian, eta oeaen ganean, esanagaz.

Neure Jangoikoa, emon egidazu grazia, gau au, Zeu ofendidu baga iragoteko, eta gorde nagizu gauza deunga guztietarik. Amen. Jesus, Maria, Josepe.

## **KRISTINAUAK JAKIN BEAR DITUZAN FEDEKO GAUZARIK PRINZIPALENAK, ETA BEARRENAK**

*Nok egin zenduzan?*

Jangoikoak.

*Zetako?*

Bera ezaututeko, ametako, serbietako, eta gero betiko gozetako.

*Zerda Jangoikoa?*

Da gauzabat esan, eta pensau al litekean eszelen-teen, eta admirableena, Jaun bat infinitamente Ona, Poderosoa, Jakituna, Justoa, gauza guztien prinzipioa, eta fina.



*Nun dago Jangoikoa?*

Zeruan, eta altarako Santisimo Sakramentuan, eta lekuguztian.

*Zein bat Jangoiko dira?*

Bat Jauna.

*Zeinbat persona daukaz Jangoikoak?*

Iru Aitea, semea, ta Espiritu Santua.

*Zerda Trinitade Santissimea.*

Da Jangoikoa bera, Aitea, semea, eta Espiritu Santua, iru persona distinto, eta Jangoiko egiazko bat.

*Zeñda lelengo personea?*

Aitea, Jauna.

*Zeñda bigarrena?*

Semea.

*Zeñda irugarrena?*

Espiritu Santua.

*Zegaiti deritxo Aitea lelengo personeari?*

Bere izatea eztakarrelako ino ganik.

*Eta Zegaiti semea bigarren personeari?*

Dakarrelako bere izatea Aitea ganik.

*Eta Zegaiti Espiritu Santua, irugarren personeari?*

Dakarrelako bere izatea Aitea Ganik, eta semea ganik.

*Aitea Jangoikoa da?*

Bai Jauna.

*Semea Jangoikoa da?*

Bai Jauna.

*Espiritu Santua Jangoikoa da?*

Bai Jauna.

*Iru Jangoiko dira?*

Ez Jauna Jangoiko bakar bat.

*Zegaiti?*

Zegaiti direan personak distintoak, eta eztagoan Jangoiko egiazko bat baño.

*Iru personak direala distintoak, Zer esan gura dau?*

Esan guradau, ze bata bestea eztireala: bana direala.

*Iruretarik zeñda Andiena, Jakitunena, edo Zarrena?*

Irurak dira igualak gauza guztietan.

*Iru pesonetarik zeñ egin zan Gizon?*

Trinidadeko bigarren pesonea, zeñ dan semea.

*Zer esan gura dau, Semea eginzala Gizon?*

Gorputza, ta Arimea artu zituzala guk legez.

*Gorputz, eta Arima au nun artu zituzan?*

Ama Birjina Santissimaeaeen Sabel Birjinallean Espiritu Santuaen obraz.

*Norda Ama Birjina Maria Santissimea?*

Da Jesu-Kristo geure Jaunaen Ama.

*Norda Jesu-Kristo?*

Jangoikoaen Semea Gizon eginik.

*Zetako Jangoikoaen Semea, Gizon egin zan?*

Gu erredimietarren, Salbetarren, eta infernurik libretearren.

*Nos Konzebidu, edo Sortuzan Jesu-Kristo?*

Martiaen ogeta bost garrenean, Zeñi esaten deusagun Andra Maria Martiko, edo Ama Birjineaen Anunziaziñoeko eguna.

*Nos jaiozan?*

Gabon gabeen Belen en

*Ze Egunetan zirtunzidauzan, eta imini eutsen Jesusaen izena?*

Urteaen lelengo egunean, edo Urte barriz.

*Ze egunetan iru Erregeak adoradu eben?*

Urtar il aen seigarrenean, edo Aparizioz.

*Nos il zan?*

Bariku Santu egunean.

*Nun, eta Zelan il zan?*

Jerusalenen Krutze baten josirik.

*No gaiti il zan Jesu-Kristo?*

Munduko gizon guztiak gaiti.

*Nos biztu, edo erresuzitadu zan?*

Pazko goxean.

*Nos igo eban Zeruetara?*

Aszensiñoe egunean.

*Ze egunetan bialdu eutsen Espiritu Santua bere*

*Apostoluai?*

Maiaz pazko egunean.

*Nos etorriko da biziak, eta ilak juzgetan?*

Munduaen akabuan.

*Ze Juizio egingo dau Jangoikoak orduan?*

Onai emongo deutse betiko gloria, eta deungai

betiko penea.

*Sakramentu Elexakoak zeinbat dira?*

Zazpi.

Lelengoa, Bautismoa.

Bigarrena; Konfirmaziñoea.

Irugarrena, Penitenzia.

Laugarrena, Komuniñoa.

Bostgarrena, Estremaunziñoa.

Seigarrena, Ordea.

Zazpigarrena, Matrimonioa.

Nok egin zituzan Sakramentuak?

Jesu-Kristo geure Jaunak, geure arimen Onerako.

*Zeñzuk dira, Sakramentu Santuak daukezan efektarik prinzipalenak?*

Bautismoak egiten gaituz Kristiñau.

Konfirmaziñoak, Konfirmau, Sendotu, edo fuertetuten gaituz fedean.

Penitenziak, parkatuten deuskuz pekatuak.

Komuniñoak, Mantenietan dituz geure arimak.

Oleaziñoak, lagunduten deusku, Ondo ilten.

Ordeak emoten dau poderea, funziño, eta gauza Sagradu etan.

Matrimoniñoak emoten dau grazia, seme alabak Zerurako aziteko.

*Zeñzuk dira Gizona en akabuko gauzak?*

Eriotzea, Juizioa, Infernua, eta Gloria.

*Il zaitezanean, Zer izango da zure arimeagaz?*

Agertuko da Jesu-Kristo en aurrera, munduan, egindituzan obra guztien kontu, ta errazoa emoten.

*Juizio au egin ezkeron nora joango da zure Arimea?*

Estadu graziazkoan ilten bada joango da Zerura, baia ilten bada pekatu mortalean, joango da infernura.

*Zer izango da zure gorputzagaz, il ezkeron?*

Auts biortuko da.

*Zure gorputza betiko geratuko da lurrean?*

Ez Jauna, Juizioko egunean biztuko da, eta agertuko da Josephatko ballean, bere bizitzako gauza guztien kontu emoten.

*Akabuko Juizio au egin, ta Zer izangoda zure gorputz, ta arimeagaz?*

Juizio Onetan Ondo Urteten badabe joango dira Zerura; baia deungaro urteten badabe joango dira biak infernura, nun egongo direan Eternamente.

## **FEDEA**

*Zeñzuk dira Kristiñauaen Birtuterik prinzipalenak?*

Iru Fedea, Esperanza, eta Karidadea.

*Zer da Fedea?*

Ikusi eztoguna Sinistutea. Zegaiti Jangoikoak erakutsi daben.

*Sinistu bearda Jangoikoak esan daben guztia?*

Bai Jauna, Zegaiti ze Artikuluen baten Sinistuten eztabenak, edo dudetan dabenak galdu dau Fedea.

*Fedea bagarik salba geñtekez.*

Ez Jauna; bada Fedea da geure Erlijiñoaen eta Salbaziñoaen fundamentu, ta Zimientu prinzipala.

*Zegaiti sinistuten dozuz fedea irakasten deutzuzan egiak?*

Zegaiti Jangoikoak (zeñ inok ezin engañau ieian, eta ez berakbere inor engañau) irakatsi, eta errebelau dituzan.

*Ze misterio dira partikularean jakin, eta sinistu bear doguzanak?*

Onek: Ielengo dala Jangoiko bat, eta iru persona distinta.

Bigarrena, Trinidadeko bigarren Personea Gizon egin zala, eta il zala Krutzean, gu bekatariok Salbetearren.

Irugarrena, Dagoala Zerua Onenzat, eta infernua deungenzat.

*Egizu ea orañ fedeko aktobat?*

Neure Jaun, eta Jangoikoa, Sinisetandot zareala Jangoiko egiazko bat, eta iru persona distinto: eta orrez ganeti Elexa Santeari irakatsi, eta errebelau deutzazun guztia, Zeuk alan esan dozulako, eta egia bera zarealako.

*Ze frutu atera bear dogu leziñoen onetatik?*

Ielengo, eskatu umildade andiagaz Jangoikoaen Majestadeari, konserbau, eta aumentau deigula berak emon euskun fede Santua.

Bigarrena, fedeko Aktoak egiten ikasi, eta egin Sarri espezialmente trabaju, edo obra onen bat asten dogunean, eta tentazinoen bat jatorkunean.

## **ESPERANZEA**

*Salbetako asko da Jangoikoagan sinistutea beste bagarik?*

Ez Jauna euki bear da Esperanza bere.

*Zer da Esperanza?*

Esperetea Zeruko gloriak Jangoikoaen graziagaz, eta geure Obra Onen medioz.

*Egizu Esperantzako Aktobat?*

Neure Jaun, eta Jangoiko ona, esperetan, eta itxadoten dot Zeure miserikordia andian, joango nasala Zerura, Zeu betiko gozetan, gordetan bado daz. Zeure mandamentu Santuak.

## **KARIDADEA**

*Asko da eukitea Fedea, ta Esperanza Salbetako?*

Ez Jauna, bearda, Karidadea bere, eta au bagarik ezin Salba liteke; bada Karidadea ez taukanen obrak eztabe ezer balio.

*Zer da Karidadea?*



Ametea Jangoikoa beste gauza guztien ganeti, eta geure proximoa geure buruak legez.

*Norzuk dira geure proximoak?*

Gizon guztiak: infiel, eta geure arerio giñokoak.

*Egizu Karidadeko Akto bat?*

Neure Jaun, eta Jangoiko laztana, nik ametan zaitudaz beste gauza guztiak baño geiago, neure bizitzea baño bere geiago, eta neure proximoa neure burua legez zeu gaiti.

*Zetara obligetan gaituz proximoen amoreak?*

Geure buruenzat gura doguna arenzat gura izate-ra.

*Zetan ezautuko da proximoari gura deutsalaguna?*

Obra miserikordiazkoak diñoena egitean.

*Zeinbat dira Obra miserikordiazkoak?*

Amalau, Zazpi Espiritualak, eta Zazpi Korporalak.

*Espiritualak dira onek.*

Lelengoa eztakianari irakastea.

Bigarrena, bearra daukanari Konseju Ona emotea.

Irugarrena, uts egin, edo erratuten dabena, arteztu, edo zuzendutea.

Laugarrena, Injuriak parkatutea.

Bostgarrena, tristea Konsoletea.

Seigarrena geure proximoen miseriak, edo argaltasunak pazienziatan igarotea.

Zazpigarrena ilak gaiti, eta geu persegietan, gaituezanak gaiti Jangoikoari erregututea.

*Zazpi Korporalak dira Onek.*

Lelengoa, Gexoak, eta presoak, bisitetea.

Bigarrena, Gose danari jaten emotea.

Irugarrena, egarri danari edaten emotea.

Laugarrena, Kautiboak erreskatetea.

Bostgarrena, billosik dagoana Janzitea.

Seigarrena, peregrinoari ostatu emotea.

Zazpigarrena, ilak enterretea.

*Ze frutu atera beardogu leziñoen onetarik.*

Lelengo gurago izan bizitzea, eta gauza guztiak galdu, pekatu mortalagaz Karidadea baño.

Bigarrena, ikasi amorezko aktoak egiten, eta sarritan egin.

Irugarrena, egin geure bear, Obra, lan, eta egiteko guztiak Jangoikoaen amoreagaiti.

Laugarrena, geure proximoa serbidu, egitendogula beragaz obra miserikordiazkoak diñoena.

## **GRAZIA**

*Geu geurez, beste baga salba gentekez?*

Ezta posible Grazia bagarik.

*Zer da Grazia?*

Da Jangoikoaen doe, edo izate Jangoikozko bat, egiten dabena gizona Jangoikoaen seme, eta Zeruko erederu.

*Zegaz alkanzauko dogu Grazia?*

Oraziñoegaz, obra onakaz, Kontrizioegaz, eta Sakramentuakaz.

*Grazia emoten deuskunean, Ze Birtute Jangoikoak emoten deusku?*

Iru Birtute Teologalak: Fedea, Esperanza, eta Karidadea. Bai, lau Kardinalak bere: Prudenzia, Justizia, Fortalezeta, eta Tenplanza. Bai, ta Humildadea, eta Kastidadea bere.

*Zeinbat dira Bienabenturanzak?*

Zorzi Lelengoa, Zorionekoak espirituz pobre direanak, Zegaiti aena dan Zeruko Erreñua.

Bigarrena, Zorionekoak mansoak; Zegaiti izango direan lurraen jabeak.

Irugarrena, Zorionekoak negar egiten dabena; Zegaiti izango direan konsoladuak.

Laugarrena, Zorionekoak, Justiziaen gose, eta egarri direanak, Zegaiti izango direan aseak.

Bostgarrena, Zorionekoak miserikordiosoak; Zegaiti miserikordia alkanzauko daben.

Seigarrena, Zorionekoak biotz garbikoak, Zegaiti onek Jangoikoa ikusiko daben.

Zazpigarrena Zorionekoak bakesoak; Zegaiti onek Jangoikoaen seme izentauko direan.

Zorzigarrena, Zorionekoak Justizia gaiti persegidu direanak, Zegaiti aena dan Zeruko erreñua.

*Ze frutu atera beardogu leziño e onetarik?*

Lelengo, emon Jangoikoari eskerrak, aen Majestadeak emon deuskuzan Grazia guztiak gaiti.

Bigarrena, parkaziñoen eskatu, izan ezgarealako orañ giño beraganako fielak.

Irugarrena, propositu firme bat artu, aurreranzean Kontu geiago egiteko bere inspiraziño e, eta abisu Santuai.

## **PEKATUA**

*Zeñ da gatx guztietarik andiena?*

Pekatua; bada bera da mundu onetan, eta bestean igaroten direan pena, ta trabaju guztien Kausea.

*Zelan apartau bear gatxakoz pekatuari?*

Pesteari, lupuari, eriotzeari, Infernuari, eta demoniño guztiai baño bere Obetoago, eta lasterrago.

*Zeinbat pekatu, jenero dagoz?*

Bi. Orijinala, eta Aktuala.

*Zer da pekatu Orijinala?*

Da pekatu à, Zeñegaz jaioten garean guztiok, eta jatorkun geure lelengo Gurasoetarik.

*Zeñzuk dira pekatu orijinalak dakazan gatxak?*

Izatea Jangoikoaen arerio, eta demoniñoaen esklabo.

Inklinauak gatxera, eta gauza deungara.

Eta sujeto munduko miseria, eta eriotzara.

*Zerda pekatu Aktuala?*

Errazoean ezaututera eldu ezkerro, geure guraz egiten doguna.

*Zeinbat modutakoa da pekatu Aktuala?*

Modu bitakoa. Mortala, eta Beniala.

*Zer da pekatu mortala?*

Da esatea, egitea, pensetea, edo deseetea Zerbait Jangoikoa en lege Santuaen Kontra gauza grabean.

*Zer egiten dau pekatu mortalak ariman?*

Kenduten dau grazia, eta irabazi eragiten dau infernua.

*Zer da pekatu Beniala?*

Da pekatu mortalaen disposiziñoen, edo presteeta bat.

*Nos ezautuko da pekatuamortala, ala beniala dan?*

Borondate osoagaz, eta gauza grabean, edo andian danean, izango da mortala. Izango da, barriz Beniala, Borondate osoagaz eztanean, edo gauza txi-karrean danean.

*Zegaiti deritxo Beniala?*

Erraz egin, eta erraz parkatuten dalako.

*Zeinbat gauza gaiti parkatuten da?*

Bederatzi gaiti Lelengoa, meza enzuna gaiti.

Bigarrena, Komulgetea gaiti.

Irugarrena, Konfesiño e jenerala gaiti.

Laugarrena, Obispoen bedeñkaziño e gaiti.

Bostgarrena, Urbedeñkatua gaiti.

Seigarrena, ogi bedeñkatua gaiti.

Zazpi garrena, Paternosterra esana gaiti.

Zorzigarrena, Sermoea enzutea gaiti.

Bederatzigarrena, bularra joa gaiti Jangoikoari par-kaziño e eskatuten jakola.

*Pekatu Kapitalak Zeinbat dira?*

Zazpi 1. Soberbia. 2. Abarizia. 3. Luxuria. 4. Ira. 5. Gula. 6. Enbidia. 7. Nagitasuna.

*Zazpi Bizio onen kontra dagoz beste zazpi Birtute, eta dira?*

1. Lelengoa, Umildadea. 2. Liberaltasuna. 3. Kastidadea. 4. Pazienzia. 5. Tenplanzea. 6. Karidadea. 7. Dilijenzia, edo Jangoikoa Serbietan ferbora.

*Zefrutu atera beardoguz leziñoe onetarik?*

Lelengo, apartadu Jangoikoa Ofendietako Okasiñoe guztietarik.

Bigarrena, Konfesau pekatu guztiak, eta aen penitentzia egiazko egin.

## **KRISTINAUAEN DOTRINEA**

Expliketan dira emen Kredoko Artikuluak.

### **KREDOA**

*Kristinauak jakin beardogun guztia, nun arakitukodogu?*

Kredoko Artikuluetan.

*Nok esan eban Kredoa?*

Amabi Apostoluak.

*Nor izan zan lelengo Kredoa asi ebana?*

**San Pedro Apostolua Guztien burua legez  
lelengo asi zan, eta esan eban**

*Sinisetandot Aita Jangoiko guztiz Poderoso Zeruan, eta lurraen Kriadoreagan.*

*Zer esan gura dau Sinisetandot Jangoikoagan?*

Esan gura dau, ze daukadala Ziertzat, eta guztiz segurutzat, dagoala Jangoiko egiazko bakar bat.

*Jangoikoak bauko gorputzaen figurarik guk legez?*

Jangoiko dan partez ez, bada da espiritu purua, baia bai Gizona dan partez.

*Nos akabauko da Jangoikoa?*

Inosbere ez: eztauko Jangoikoak, ez asierarik, ez akaburik.

*Zer esan gura dau: Sinisetandot Aiteagan?*

Sinistuten dodala, Trinidadeko lelengo personea, dala Aitea.

*Semea, eta Espiritu Santua, ezdira guztiz Poderosoak Aitea legez?*

Bai Jauna.

*Zegaiti esatenda bada, Aitea dala guztiz Poderoso, eta ez Semea, ez Espiritu Santua?*

Zegaiti poderez jagokan Aiteari, Jakituria Semeari, eta Amorea Espiritu Santuari legez.

*Jangoikoa Zelanda guztiz Poderoso?*

Bere gura izanagaz beste bagarik, egiten dabela-ko gura daben guztia.



*Zer esan gura dau* Zeruaen, eta lurraen Kriadorea-  
gan?

Ezerbere ezerik egin zituzala, Zeruak, lurra, eta gauza guztiak.

*Zer entendietan dozu, Zeruak, lurra, eta beste gauza guztiak gaiti;* Egin Zituzala ezerbere ezerik, Angeruak, Gizonak, eta Munduan dagozan beste gauza guztiak.

*Zerzuk dira Angeruak?*

Zeruan Jangoikoa gozetan dagozan Espiritu biena-  
benturadu batzuk.

*Zetako Jangoikoak egin zituzan?*

Bera beti alabetako, bere Ministroak legez Elexea gobernetako, eta gizonak gordetako.

*Zelan Kriadu eban Jangoikoak Gizona?*

Egin eban gorputza lurragaz, eta Kriadu eban Ari-  
mea ezer bere ezerik.

*Zerda Arimea?*

Da Jangoikoak bere anzera eginiko espiritu inos  
bere il, ez akabauko eztan bat.

*Ze estadutan Jangoikoak Kriatu eban lelengo Gizo-  
na?*

Inozenziako estaduan.

*Zelan bada galdu eban estaduau?*

Bere desobedenzia gaiti, jana gaiti Jangoikoak eragotzita eukan frutea.

*Eta Jangoikoak Zer egin eban pekatu au erredimietako?*

Bialdu eban Zerurik lurrera bere semea ilteko afrenta andia gaz Krutzean.

*Ze frutu atera bear dogu leziñoen onetarik?*

Lelengo, admirau, eta adoraue Jangoikoaen grande-zak.

Bigarrena, graziak emon egin genduzalako bere imajina, eta anzera.

Irugarrena, Ezautu geure ezerbere eza, eta jaiok gareana pekatuan.

## **Bigarren Artikulua**

### **San Andresek esan eban**

Eta bere seme bakar Jesu-Kristo geure Jaunagan.

*Jesu aen izenak, Zer esan gura dau?*

Salbadorea, edo libradorea.

Bere eriotzeagaz librau, eta Salbau genduzalako infernurik.

*Kristok Zer esan gura dau?*

Unjidua, edo Konsagradua: bere Aita Eternoak Unjidu ebalako Errege, eta Sazerdote.

*Zer entendietan dozu Semea gaiti?*

Trinidadeko bigarren personea dala Semea.

*Kristinauak Jangoikoaen Semeak dira?*

Bai Jauna, adopzino ez, eta graziaz, baia ez naturalezaz.

*Zetako esaten deutzazu Kristori, geure Jauna?*

Bere eriotzeagaz Erredimidu genduzalako.

*Ze frutu atera beardogu leziñoen onetarik?*

Lelengo, Jesusaen izen Santuari errespeto, eta deboziñoen andi bat euki.

Bigarrena, emon Jangoikoari grazia andiak, bealdu euskulako bere seme maitea.

Irugarrena, Amadu, eta serbidu fielmente Jesu-Kristo geure Jauna; bada bera da geure Maisu eta jabea.

## **Irugarren Artikulua**

### **Santiago Nagusiak esan eban**

Zeñ Sortu zan Espiritu Santu aen obraz ta graziaz: Jaiozan Maria Birjineaganik.

*Zer esan guradau, Jesu-Kristo Konzebidu, eta Sortu zala Espiritu Santuaen obraz?*

Trinidadeko bigarren personea Gizon egin zala Maria Santissimeaen Sabel Birjinallean, gizonaen obra

baga, Espiritu Santuaen obraz, zala Señora au Donzella. Semea jaio baño leenago, jaiotzean, eta jaio ezkerro.

*Esan egizu Klaruago: Zeinbat gauza obrau Zituzan Espiritu Santuak Enkarnaziñoeko Misterio Santuan?*

Lau gauza Jauna: Ielengo Maria Santissimeaen entrañetako Odol garbiagaz formau, edo egin eban Jesu-Kristoen Gorputza.

Bigarrena, Kriadu eban Arimea.

Irugarrena, Unidu eban gorputza Arimeagaz.

Laugarrena, Trinidadeko bigarren personea juntadu, edo batuzan Gorputz, eta Arima onegaz, eta auzan zan Jangoikoa Gizon egitea.

*Ez eben egin obra mirarizko andi au Aiteak, eta semeak bere?*

Bai Jauna.

*Zegaiti esatenda bada izanzala Espiritu Santuaen obraz, ta graziaz?*

Zalako Amorezko obrea, eta Amorea jagoko, edo toketan jako Espiritu Santuari, Aiteari Poderea, eta Semeari Jakituria legez.

*Aitea, eta Espiritu Santua Gizon egin zirean?*

Ez Jauna, Semea bakarrik.

*Zeinbat naturaleza daukaz Kristok?*

Bi, bata Jangoikoaena, eta bestea Gizonaena.

*Zer esan gura dau, Kristok daukala Jangoikoaen, eta Gizonaen naturalezea?*

Esan gura dau, ze dala Jangoikoa, eta bai Gizona bere.

*Nosik ona da Jangoiko?*

Eternamente, beti; bada Jangoikoak eztauko asierarik.

*Nosik ona da Gizon?*

Maria Santissimeaen Sabel Birjinallean Sortuzanik ona

*Zeinbat entendimentu daukaz Kristok?*

Bi, bata Jangoiko dan partez, eta bestea Gizona dan partez.

*Zeinbat borondate?*

Bi, bata Jangoiko dan partez, eta bestea Gizona dan partez.

*Zeinbat persona daukaz Kristok?*

Persona bat, eta bera Jangoiko dan, partez.

*Zeinbat memoria?*

Bat, eta bera Gizona dan partez; bada Jangoikoak gauza guztiak daukaz presente, eta bear eztau memoriarik.

*Non dago Jesu-Kristo?*

Jangoiko dan partez, dago leku guztian, eta Gizona dan partez Zeruan, eta Santissimo Sakramentu altarakoan.

*Kristok bauko Aitarik, edo Amarik?*

Jangoiko dan partez dauko Aita, Zeñdan Aita Eternoa, eta eztauko Amarik, Gizona dan partez eztauko aitarik, ezpada Ama, eta da Maria Santissimea, Zeñek erabili eban bere Sabel Birjinallean bedaratzi illabetean, eta egin eban Gabon gabeen Belenen.

*Zefrutu atera beardogu leziñoen onetarik?*

Lelengo, Jesus aen jaiotzeagaz deboziñoen andibat euki.

Bigarrena, Graziak, eta eskerrak emon, geuri deuskun Amore pare bagakoagaiti.

Irugarrena deseau bere pobreza Santua, eta amau bere umildade, eta inozentzia, prokuretan dogula bere Birtute Santuak imitetea.

## **Laugarren Artikulua**

### **S. Juanek esan eban**

Padezidu eban Ponzio Pilatosen poderen bean, izanzan Kruzifikadua, il, ta enterradua.

*Zer igaro eban Jesu-Kristo geure Jaunak bere Pasiñoen Santuan?*

Tristeza, eta larritasun mortala bere ariman, dolo-  
re ikaragarriak bere gorputzean, eta eriotza afrento-  
soa Krutzean.

*Jesu-Kristo Jangoiko zan partez, ala Gizon zan par-  
tez il zan?*

Gizona zan partez.

*Zer izan zan Kausea Kristo Krutzean añ afrenta  
andiagaz ilteko?*

Gure pekatuak.

*Zer esan guradau, Kristo il zala?*

Apartau jakola bere Arimea-Gorputzaganik.

*Jangoikotasuna, edo Dibinidadea apartauzan Gor-  
putz, eta Arimeaganik?*

Ez Jauna.

*Krutzerik eretsita, nun imini eben Jesu-Kristo en  
Gorputza?*

Sepultura barri baten.

*Ze frutu atera beardogu leziñoë onetarik?*

Lelengo, gomutau, akordau, eta Konsiderau Sarri  
Jesu-Kristo en Pasiñoë Santua.

Bigarrena, meza enzuten gagozanean, ekarri  
gogora bere bizitza, eta eriotzan gu gaiti igaro zituzan  
trabajo, pena, eta tormentuak.

Irugarrena, ez itxi bariekurik, Pasiñoe Santu onen memorian, penitentzia, edo obra on bat egin bagarik.

Laugarrena, Jangoikoaen Majestadeak bealduten deuskuzan Krutzeak pazienziagaz igaro.

## **Bostgarren Artikulua**

### **San Tomasek esan eban**

Jatsizan infernuetara, eta irugarren egunean biztuzan il en arterik.

*Zer esan gura dau, Jatsi zala infernuetara?*

Esan gura dau, ze Jesu-Kristo en Arimea, bere Gorputza ganik apartau ezkerro, jatsi zala Linbora, bere etorrera Santu aen Begira egozan Guraso Santuen Arimak ateraten.

*Zer esan gura dau: Irugarren egunean biztuzala il en arterik?*

Esan gura dau, ze Pazko egunean bere Arima glorioso, eta Gorputza alkarregana juntau zireala, ez geiago ilteko.

*Zer egin eban Kristok biztu, edo erresuzitau ezkerro?*

Berrogei egunean ibilizan munduan, bere dotrina, eta erresurreziñoea Konfirmetarren.

Ze frutu atera bear dogu Leziñoe onetarik?



Lelengo Jesu-Kristoagaz biztutea espiritualmente, biortuten gareala beragana Osorik.

Bigarrena, Esperanza firmebat euki Jangoikoagan, bizituko direala geure gorputzak, glorioso Juizioko egunean, bizi bagara orañ Kristinau onak legez.

## **Seigarren Artikulua**

### **S.Tiagok esan eban**

Igo eban Zeruetara, eta dago jarririk Aita Jangoiko guztiz Poderosoan ezkomatati.

*Nos igo eban Kristok Zeruetara?*

Aszensiñoen egunean: biztuzanik berrogei garren egunean.

*Zelan igo eban?*

Bere Birtutez; berez.

*Zer egiten igo eban Zerura?*

Guri ango atea zabalduten: an gure Abogadua eta bitarteko bere Aita, Eternoagaz izaten: eta arik Espiritu Santua bealduten.

*Zetako esaten dozu dagoala jarririk?*

Guri entendietan emoteko, bere glorian daukan atsegina, ta deskansua.

*Eta Zer esan guradau, dagoala Aita Jangoiko guztiz Poderosoan ezkomatati?*

Daukala beragaz gloriabardina Jangoiko dan partez, eta Gizona dan partez beste guztiak baño geiago.

*Ze frutu atera beardogu leziñoen onetarik?*

Lelengo, apartau, ta kendu geure biotzak mundu onetako ondasun falsoetarik, eta ez kasurik egin, eta ez jaramon emeko alegria, eta jolas falsoai.

Bigarrena, akordau, eta gomutatu pensetan dogu-la Sarri Zeruko deskansu, eta Santuak an dauken ditxa, ta Zorionean.

Irugarrena, bizi emen kontuz, galdu eztaigun geure erruz Zeruko gloria, eta Santuen Konpañia.

## **Zazpigarren Artikulua** **San Felipek esan eban**

Arik etorriko da biziak, eta ilak juzgetan.

*Nos etorriko da biziak, eta ilak juzgetan?*

Munduaen akabuan. Juizioko egun ikaragarriandian.

*Zelan etorriko da?*

Podere, eta Gloria andiagaz.

*Zer egingo dau Jesu-Kristok Juizioko egun andi, terrible, ikaragarri atan?*

Munduan egin direan gauza on, ta deunga guztiak agertuko dituz, guztien aurrean.

*Ta Zetako?*

Onai emoteko gloria, eta Onrea Angeru, eta Gizon guztien aurrean, eta deungai, lotsariz, ta Konfusiño ez bete, ta infernuko penea.

*Zer esango deutse Jangoikoak onai?*

Erdu neure Aitaen bedeñkatuok, erdu munduaen asierarik Zuenzat dagoan Zeruko erreñua artuten.

*Eta Zer esango deutse deungai?*

Zoaz madarikatuok nire begien aurrerik, zoaz Sekulako infernuko sutara, Zeñ dagoan pretaurik infernuko demoniño en zat.

*Zer izango da Gizonakaz, juizio au egin ezkerok?*

Onak joango dira Zerura, eta deungak Ondatuko dira infernuan, non egongo direan erretan eternidade guztian.

*Ze frutu atera beardogu leziñoen onetarik?*

Lelengo, akordau Sarri, agertuko direala orañ emen egiten doguzan gauza guztiak, issilak izan arrenbere Juizioko egun ikaragarri onetan.

Bigarrena, ez pekaturik itxi konfesiñoen esan bagarik, lotsarizkoak; eta andiak izan arren bere; bada guztiak agertuko dira an, munduko, Zeruko, eta infernuko guztien aurrean.

## **Zorzigarren Artikulua**

### **San Bartolomek esan eban**

Sinisetandot Espiritu Santua gan.

*Zer esan gura dau artikulu onek?*

Espiritu Santua dala Trinidadeko irugarren Perso-  
nea, zeñegan sinistuten dodan.

*Nun dago Espiritu Santua?*

Leku guztian; baia partikularean dago arima Justo-  
etan.

*Zer egiten dau arima Justoetan?*

Bere grazian santifiketan dituz, eta lagunduten  
deutse euren nezesidade, ta bear orduetan.

*Erregutu bear deutsalagu Espiritu Santuari?*

Bai Jauna, bada berak lagundu bagarik, ezin alkan-  
zau ginai geure Salbaziñoa.

*Zeinbat dira Espiritu Santuaen doeak?*

Zazpi. Lelengoa Jakituriako Doea. 2. Entendimen-  
tuko Doea. 3. Konsejuko Doea. 4. Fortalezako Doea. 5.  
Zienziako Doea. 6. Piedadeko Doea. 7. Jangoikoaen  
bildurtasuneko Doea.

*Ze frutu atera beardogtu leziñoa onetarik?*

Lelengo, Eskatu beardetsagu umildade agaz,  
etorridella geure arimak Konsoletan, Apostolui etorri-  
jakena legez.

Bigarrena, prestau, ta disponidu geure arimak Espiritu Santua ondo errezibietako.

Irugarrena, ez jausi pekatu mortalean, joan ezten geure arimatarik.

## **Bederatzi Garren Artikulua**

### **San Mateok esan eban**

Elexa Santa Katolikea Santuen Komuniñoa.

*Zerda Elexea?*

Da Kristiñau fiel guztien Kongregaziñoa, Zeñen burua dan Aita Santua.

*Nor da Aita Santua?*

Da Sumo Pontifize Erromakoa Kristo en Bikario, edo ordeko lurrean, Zeñi gagozan guztiok obligauta obedeziatara.

*Zeñzuk dira Elexa Santeaen Señaleak?*

Izatea: Bat. Santea. Katolikea. Apostolikea.

*Zelan da Bat?*

Elexa au Konponietandabenak eztankelako fede bat, eta Errelijijioe bat baño.

*Zelan da, Santea?*

Irakatsi, eta aginduten Daben guztia dalako Santua, eta geure Salbaziño erako Serbietan dabena.

*Zer da, Katolikea?*

Dala Unibersala, eta dagoala Zabalduta mundu guztian.

*Zetako esatendozu, dala Apostolikea?*

Apostoluak izan zirealako, Kristo aurrerengo zala, Elexa onen leengo fundamentuak.

*Elexa onek irakasten deuskun guztia, da ziertua, eta faltau ezin leiana?*

Bai Jauna, Espiritu Santuak gobernetandabelako.

*Zer esan gura dau: Santuen Komuniñoek?*

Grazian dagozan fielak daukela parte beste en ondasun espiritualetan gorputz baten mienbroak legez.

*Zeñzuk dira ondasun espiritualak?*

Sakramentuak, Induljenziak, orazinoak, eta obra onak.

*Bat Salba liteke, Elexa onetan eztagoala?*

Ez Jauna, bada Elexa onez Kanpoti eztago federik, eta fedea da geure Salbaziño en fundamentu prinzipala.

*Norzuk dira Elexa onen ondasun espiritualetan parterik eztaukenak?*

Infielak, Erejeak, eta deskomulgaduak.

*Ze frutu atera beardogu leziñoen onetarik?*

Lelengo emon grazia andiak Jangoikoaen Majestadeari, Elexa Santa onen mienbro, eta Seme egin gaituzalako.

Bigarrena, Gura dogula bizi, eta il Elexa Santa onen fedean.

Irugarrena, Erregutu Jangoikoari Elexa Santa onez Kanpoti dagozanak gaiti.

Laugarrena, apartau Erejen konbersazinoerik.

## **Amargarren Artikulua**

### **S. Simonek esan eban**

Pekatuen parkaziñoa.

*Jesu-Kristok emon eban poderea, pekatuak parkatuteko?*

Bai Jauna Lelengo, emon eutsen bere Apostolui, eta gero Obispo, eta Sazerdoteai.

*Pekatuak parkatutea gauza andia da?*

Potestade geiago, eta andiagoa da, Milagroak egitea baño.

*Zetati parkatuten dira pekatuak?*

Bautismoko, eta Penitenziako Sakramentuetati.

*Ze pekatu parkatuten dau Bautismoak?*

Pekatu Orijinal, eta bai beste edozeñ, badauko bere bateatuten danak.

*Ze pekatu parkatuten dau Penitenziak?*

Bateatu ezkeru eginiko guztiak.

*Ze frutu atera beardogu leziñoe onetarik?*

Lelengo, Jangoikoari eskerrak emon, bere Elexa Santeari itxi eutsalako poderea, pekatuak parkatuteko.

Bigarrena, Sarri Konfesau, prestetan, eta leenaz disponietan gareala, Sakramentu Santu Penitenziakoa frutuagaz errezibietako.

## **Amaekagarren Artikulua**

### **S. Tadeok esan eban**

Aragia en erresurreziñoea.

*Zer esan gura dau:* Aragiaen erresurreziñoeak?

Biztuko gareala guztiok Orañ daukaguzan gorputz, ta arimakaz.

*Ze diferenzia egongo da Onen ta deungen artean?*

Onen gorputzak egongo dira guztiz ederrak, eta gloriáz beterik. Deungenak barriz txito ezañak, eta ikaragarriak.

*Nos bizituko dira?*

Munduaen akabuan.

*Ze frutu atera beardogu leziñoe onetarik?*



Lelengo, geure gorputzok ez amau añbeste, eta ez beste edertasunik bere, gura badoguz ikusi eder, ta glorioso erresurrezinoeko egunean.

Bigarrena, geure pena, ta trabaju etan konsolau; bada esperetan dogu, biztuko gareala glorioso.

Irugarrena, ez ainbeste pena artu geure adiskide onen eriotzan; bada dakigu, ikusiko doguzala orañdino.

## **Amabigarren Artikulua**

### **San Matiasek esan eban**

Bizitza betikoa.

*Zer da:* Bizitza betikoa.

Zeruko bienabenturaduen Etsea, ta deskansuko lekua, zeñi deritxon Paradisua.

*Zetan dago deskansu, atsegin, eta gloria au?*

Jangoikoa arpegiz arpegi ikustean, eta bera beti ametean.

*Andiak dira Zeruan Bienabenturaduak gozetan dituezan gloriak?*

Infinitamente andiagoak, munduko Erregerik andienak euki dituezan onra, aberatstasun, deskansu, eta atsegin guztiak, baño bere.

*Zelangoak dira Jangoikoak, bera ametan daben enzat gordeta daukazan ondasunak?*

Añ dira andiak, ze ezin esan lei munduan dagoanek, Zelangoak direan, bada begik eztau inos gauza añ ederrik ikusi, ez belarriak enzun añ dulce, ta admiragarririk; eta ezin gizonaen entendimentuk sekula alkanzau lei, ango gloria, eta atseginak Zelangoak direan.

*Nos artean iraungo dabe gloria onek?*

Eternamente: Jangoikoa Jangoiko dan artean.

*Norzuk joango dira Zerura?*

Mandamentu Santuak gorde, ta Jangoiko aen grazian ilten direanak.

*Ze frutu atera beardogu leziñoen onetarik?*

Lelengo, ez kendu inos gogorik Paradisuko Zorioneko en Etse Zabalau, eta arako Sarritan Zizpuru egin.

Bigarrena, igaro pazienziagaz mundu onetako menos prezio, neke, eta ez eukiak, edo nezesidadeak.

Irugarrena, egin obra onak, ara joateko.

*Gizonaen akabuko gauzak.*

## **ERIoTZEA**

*Zerda Iltea?*

Arimea gorputza ganik apartetea.

*Nos ilgogara?*

Eztakigu, ez nos, ez nun, ez zelan.

*Ze estadutan ilgogara?*

Ori bere eztakigu; baia geienean jazo kodana da, ondo bizidana ondo iltea: orregaiti esan doa:

*Zelango bizitzea alango eriotzea.*

*Ondo da prest egotea, eriotzea datorreneko?*

Bai; bada geure eriotzan dago, edo geure betiko ditxa, ta Zoriona, edo geure betiko desditxa, ta zorigestoa.

*Zer egin bear dogu, prest, edo pronto egoteko?*

Beardogu egon estadu graziatzkoan.

Egin penitentzia egiazkoa, eriotzea eldu baño leenago.

Eta iño en gauzatan kargu bagara, artean bako-txari berea emon.

*Ze frutu atera beardogu leziño e onetarik?*

Lelengo Sarri pensau eriotzan.

Bigarrena, ez ainbeste estimau, gero auts egin, eta ustelduko direan gorputzonek.

Irugarrena, egin orañ eriotzako orduan gurako genkena.

**JUIZIO PARTIKULARA,**

## **EDO BAKOTXENA**

*Il, ta bertati izango gara juzgaduak?*

Bai Jauna.

*Zetan?*

Geure bizitzako pensamentu, berba, eta obra guztietan.

*Zelangoa izango da Juizio au?*

Guxtiz gogorra, eta ikaragarria, bada Jueza izango da entero arteza, eta Juizio onetan dago geure ditxa, edo desditxa betikoa.

*Norzuk izango dira akusadoreak?*

Infernuko Demonioak, eta norberen Konzienzia.

*Zer egin beardogu, Juizio onetan ondo urteteko?*

Lelengo, pekatuaganik iges egin.

Bigarrena, obra miserikordiazkoetan ejerzitadu.

Irugarrena, ez proximo en gauzarik juzgadu, geureak baño.

## **PURGATORIOA**

*Nora joango da Zure arimea Juzgadu ezkerero?*

Eztadu graziazkoan egon bada, eta bere pekatuen Zorra pagauta, joango da Zerura; baia egon bada pekatu mortalean joangoda Infernura.

*Eta nos joango da Purgatoriora?*

Purgatoriora joango da, estadu graziazkoan ilarrenbere, pagau ezpadau pekatuen zorra.

*Zerda Purgatorioa?*

Da Suuz beteriko Karzela bat, non dagozan Arimak, pagetan Jangoikoaen justiziari, pena pekatuak gaiti Zor deutsena.

*Purgaotiora doazan Arimak an egongo dira beti?*

Ez Jauna, pagau daienean euren Zorra joango dira Zerura.

*Andiak dira Purgatorioko penak?*

Añ dira andiak, ze mundu onetako pena, ta traba-ju guztiak eztira ezer, aen aldean.

*Zelan Sokorridu leiz purgatorioko Arimak?*

Altarak bisitauagaz, espezialmente arimea ateratendan egunean, Orazinoeagaz, barauakaz, limosneagaz, il en buldea artuagaz, eta alanbere geiago Meza-ko Sakrifizio Santuagaz.

*Zefrutu atera beardogu leziñoen Onetarik?*

Lelengo egitea penitentzia mundu onetan, besterako itxi baga.

Bigarrena, prokurau induljenziak irabaztea.

Irugarrena, ez jausi faltatan txikarrak direala ustearren bere.

Laugarrena, sokorridu, ta alibiau Arima Santak.

## **JUIZIO UNIBERSALA**

Esanda zerdan, Kredoko Zazpigarren Artikuluan  
73.

## **GLORIA**

Esanda zerdan, Kredoko Amajibarren Artikuluan  
85.

## **INFERNUA**

*Zerda Infernua?*

Da Karzela, eta leze ilun, ikaragarri bat, lurraen  
erdian, edo barruan, Jangoikoaen justiziak iminia,  
suuz, penaz, eta tormentuz beterik, pekatu mortalean  
il ten direanenzat.

*Infernuko pena, ta tormentuak andiak dira?*

Añ dira andiak, Ze munduko gatx, pena, trabaju,  
eta tormentu guztiak bat eginda bere, ango txikarrene-  
nagaz eztira konparetakoak.

*Zeinbat pena modu dagoz, edo iragoten dira Infer-  
nuan?*

Pena jenero bi: bata da pena Dañukoa, eta bestea  
Sentidukoa.

*Zerda pena Dañukoa?*

Ez ikustea, eta ez esperazarik eukitea, sekula Jangoikoa ekusteko, euren erruz.

*Zerda pena Sentidukoa?*

Suagaz, eta beste tormentu jeneroakaz, Kondenauak Infernuan igaroten daben penea.

*Nos akabau, amaitu, edo gitxituko dira infernuko penak?*

Inosbere ez, inosbere ez, inosbere ez, beti, sekula, fin baga, iraungo dabe; eta eztabe Kondenauak instante bateko gustorik inos eukiko.

*Zeinbat pekatu mortal gaiti, joatenda infernura?*

Pensamentuzko bat da asko, ara joateko, penitentzia egin baga il ten bada.

*Ze frutu atera beardogu leziñoen onetarik?*

Lelengo, tentaziñoen deungarik jatorkunean akordau tormentu ikaragarri onekaz.

Bigarrena mundu onetako pena, eta trabajuak igaro pazienziagaz, ez bestean eternamente padezietarren.

Irugarrena, gurago izan milla bidar bizitzea galdu, Ze ez ofendidu Jangoikoa pekatu mortalagaz.

*Expliketari dira emen Paternosterra, eta Abe Maria.*

## **PATERNOSTERRA**

*Oraziño e guztietarik Zeñda onena.*

Paternosterra.

*Zegaiti?*

Apostoluak eskatuta, Jesu-Kristok berak esan ebalako.

*Zetako esaten deutzazu Jangoikoari Aitagurea?*

Berak Kriadu, eta Konserbetan gaituzalako, eta bere Semezate Bautismoan adoptau genduzalako.

*Zeñda Paternosterraen lelengo petiziño, edo eskaria?*

Santifikadu bedi Zure izena.

Emen eskatuten doguna da, Jangoikoaren izena, izan della ezautua, amadua onradua, eta Serbidua mundu guztian.

*Zeñda bigarrena?*

Betor Zure erreñua gugana.

Emen Jangoikoari eskatuten deutzagu, egon della, eta erreñau daiala emen geure arimetan graziagaz, eta gero emon deigula bere gloria.

*Zeñda irugarrena?*

Egin bedi Zure borondatea, Zelan Zeruan, alan lurrean.



Emen eskatutendogu, Jangoikoak emon deigula grazia, bere borondate santua emen egiteko, Zeruan Santuak, eta Angeruak egiten dabena legez.

*Zeñda laugarrena?*

Emon egiguzu gaur geure eguneango ogia.

Emen eskatuten deutsagu emon deigula gorputzaenzat Mantenimentua, eta arimarako grazia.

*Zeñda bostgarrena?*

Parkatu egiguzuz geure Zorrak geuk geure Zordunai parketan dautseguzan legez.

Emen eskatuten doguna da, parkatu deiguzala Jangoikoak geure falta, eta pekatuak, geuk parkatuten deusteguna legez geuri deungaro, eta gatx egin deuskuenai.

*Zeñda seigarrena?*

Itxi ezegiguzu jausten tentaziñoean.

Emen eskatuten dogu, librau, eta apartau gaizala Jangoiko geure Jaunak Demoniñoen tentazino etarik; edo ezpabere, aetan ez jausteko emon deigula bere grazia.

*Zeñda Zazpigarrena?*

Baialibradu gaizuz gatxerik.

Emen eskatuten doguna da, Jangoikoak libradu gaizala, arimako, eta gorputzeko gatx, eta peligru guztietarik.

*Akabuan esaten dozun berba Amen Zer esan gura dau?*

Alan izan della.

*Alkanzauko dogu Jangoikoaganik Paternosterrean eskatuten doguna?*

Bai Jauna, eskatuten badogu beardan legez Konbenietan jakuna; eta au umildadeagaz, Konfianzeagaz, biotz garbiagaz, eta perseberanziagaz.

*Ze frutu atera beardogu leziño e onetarik?*

Lelengo ikasi ondo Paternosterraen petiziño e bakotxeko esplikazinoea.

Bigarrena, Errezau Deboziño e agaz goxean, eta arratsean, gitxienaz.

Irugarrena, erregutu, ta eskatu Jangoikoari beardoguna, Umildadeagaz, eta Konfianzeagaz.

## **ABE MARIA**

*Zetako esatendozu Paternosterraen Urrengo Abe Maria?*

Ama Birjina Santissimea bitarteko dala, errazago alkanzau daigun Jangoikoaganik, Paternosterrean eskatu deutsalaguna.

*Nok esan eban Abe Maria?*

Angeru San Gabrieleke; Santa Isabeleke, eta Elexa Santeake: eta alan guk bere Angeruagaz barri onak emonten deutsalaguz: Santa Isabelegaz alabetandogu: eta Elexa Santeagaz erregutu, eta eskatuten deutsalagu.

*Zelan obligauko dogu Señora au, gu gaiti Jangoikoari erregutu deion.*

Bere deboto izanagaz: imitetan doguzala bere pureza, Umildade, Modestia, eta beste birtuteak.

*Ze frutu atera beardogu leziñoe onetarik?*

Lelengo, errazau deboziñoe andiagaz iru Abe Maria, goxean, egerdian, eta arratsean bere Konzeziñoe garbiaen erreberenzian.

Bigarrena, ez itxi egunik bere errosario Santua errezaugarik.

Irugarrena, euki Konfianza andi bat beragan, dalako pekatarien Ama miseriakordiaz betea.

Laugarrena, bere fiesta, eta egun prinzipaletan Konfesau, eta Komulgau.

*Expliketean dira emen Amar Mandamentuak, eta bai bost Elexakoak bere.*

## **MANDAMENTU SANTU JANGOIKOAREN LEGEKOAK DIRA AMAR**

*Eta Mandamentu guztiak gorde bear dira?*

Bai Jauna; bada bat bakarrik austen bada bere gauza grabean, Eta Konsentimentu osoagaz, egingo da pekatu mortala.

*Zeñda Ielengo Mandamentua?*

Jangoikoa ametea gauza guztien ganean.

Mandamentu onek obligetan gaituz, Jangoikoa bera bakarrik, gorputz, eta arimako erreberenziarik andienagaz, adoretara: fede biziagaz beragan sinistu, ta esperetan dogula.

*Zelan Jangoikoa adorauko da?*

Gutzizko errespeto, Umildade, deboziño, eta Modestia andiagaz.

*Egizu Adoraziñoeko akto bat?*

Neure Jaun, eta Jangoikoa, adoretan zaitudaz neure Kriadore, ta Salbadore Ona legez: Arren nigaz miserikordia.

*Zerda Jangoikoa ametea gauza guztien ganeti?*

Gurago izatea bizitzea, eta gauza guztiak galdu, bera ofendidu baño.

*Zer eragotzitendau Mandamentu onek?*

Sorginkeria, Supestiziñoa, Sakrilejioa, infidelidadea, Jangoiko falsoak adoretea, erejia, desesperaziñoa, eta Jangoikoaen gorrotoa.

*Ze frutu atera beardogu leziñoa onetarik?*

Lelengo goxean arratsean, eta meza enzutendogunean adarau Jaungoikoa errespeto eta Umildade andiagaz.

Bigarrena, geure aziñoa guztiak egin Jangoikoaen amoreagaiti.

Irugarrena gorde kontu andiagaz mandamentu Santu onek esaten dabena.

*Zeñda Bigarrena?*

Bere izen Santuagaz ez juramentu banoan egitea.

Mandamentu onek eragotziten dituz Jangoikoaen kontrako juramentu, eta blasfemiak, eta obligetan gaituz Boto, edo promesak kunplietara.

*Zerda Juramentu banoan egitea?*

Egitea egia baga, justizia baga, eta nezesidade baga, edo bear eztala.

Jangoikoaen izen Santuagaz?

Jangoikoaen izena, Jesu-Kristoena, Ama Birjina Santissimeaena, Zeruko Santuena, eta bai Kriatura espezialekoena bere.

*Zer da Blasfemia?*

Jangoikoaen edo beste Santuen kontra, esaten dan berba injurioso bat.

*Zer da Botoa?*

Da Jangoikoari egiten jakon promes bat, berari agradetan jakon gauzaen baten ganean.

*Kunplidu beardoguz Boto, edo promesak?*

Bai Jauna, bada da Jangoikoari burla egitea, Ofrezidu, ta ez Kunplietea.

*Ze frutu atera beardogu leziño e onetarik?*

Lelengo, Juramenturik ez egiteko euki Usu, Kostunbre, edo izkunea, esateko bai, edo ez Kristok irakasten deuskuna legez.

Bigarrena, euki errespeto, eta erreberentzia andia Jangoikoa en izen Santuari, eta esan Jesus inok juramentu egitendabenean.

Irugarrena, Kunplidu ainbat lasterren, eta beardan legez Jangoikoari, eta bere Santuai prometidu jakena, eta ez egin profesik erraz, ta Konseju bagarik.

*Zeñda irugarrena?*

Jaiegunak Santifiketea.

Mandamentu onek aginduten deusku, ez bearrik egiteko, eta Jangoikoa serbietan egun a igaroteko.

*Zeñzuk dira egin bear eztirean bearrak?*

Gorputza nekatuta egiten direanak: eta Kriaduak, eta Ofizioko jenteak, euren bizitzea igaroteko egin daroezanak.

*Nos baita bearra egin lei domeka, eta jaiegun, bearrik ez egiteko esanta dagozanetan?*

Nezesidadea badago bai; baia Orretarako lizenzia eskatu bear da, ezelanbere al-badedi: eta bearra egin arrenbere Meza enzun bearda.

*Zer egin bearda Domeka, ta Jaiak Ondo gorde, ta Santifiketako?*

Mezara, errosariora ofizio Santuetara, eta Dotrina-ra Deboziño e andiagaz asistidu.

*Ze pekatu egitendabe guraso, ta Ugazabak, bearra eragiten badeutse nezesidade baga, eta mezea enzuten eragotziten badeutse Domeka, ta jai egunetan euren ume, eta Kriadu Kriadai?*

Egiten dabe pekatu Mortala, eta bildur izateko da, Jangoikoak maldizinoea ezarri eztaian euren familien ganera.

*Ze frutu atera beardogu leziño e onetarik?*

Lelengo, ez bearrik egitea Jai domeketan nezesidade baga.

Bigarrena, igaro eguna Jangoikoa Serbietan piedadeko obra onakaz.

Irugarrena, apartau, eta iges egin pekatuaen okasinoetarik, tabernetarik, tanbolin, jolas, eta danzatarik; bada aetan Jangoikoa geien ofendietan da.

*Zeñda laugarrena?*

Aita, ta Ama Onretea.

Mandamentu Onek obligetan gaituz gurasoak ametara, Onretara, Obedezietara, eta euren nezesidetan asistidu, eta Sokorrietara. *Bizi gaitезan luzaro.*

*Norzuk entendietan dozuz besterik gurasozat?*

Nagusiago direanak edadean, dignidadean, eta gobernuan. Onek dira Elexetako Pastore, eta Sazerdo-teak, Justizietako buruak, Maisuak, Ugazabak, eta beste onelangoak.

*Zerda gurasoak ametea?*

Deseetea, eta gura izatea on guztia, alan arimako, Zelan gorputzekoa.

*Zer da gurasoak onretea?*

Errespetoagaz berba egitea, estimetea, sufrietea, eta euren faltak ixilik eukitea.

*Zer da Obedezietea?*



Aginduten daben gauzea, justoa, eta beardana bada, arin, eta gustoz egitea.

*Zer esan guradau Sokorrieteak?*

Euren Zarzan, nezesidade eta geisoetan lagundutea: eta il ditezanean eurak gaiti Jangoikoari erregututea.

*Zelan Jangoikoak Kastigetan dituz, euren gurasoak errespeto bagarik, eta deungaro tratetan dituezan Umeak?*

Ezarten deutse bere Maldizinoea, Kondenetan dituz eriotzara, eta Ondatuten dituz infernura.

*Ze Obligaziñoe dauke gurasoak euren Umeakganako?*

Emon bear deutse Mantenimentua, azi Jangoiko-  
aen bildurtasunean, eta Dotrina Onean, Korrezianoea-  
gaz, amoreagaz, eta exenplu Onagaz.

*Ze frutu atera beardogu leziñoe onetarik?*

Lelengo, Obedezidu geure gurasoai aginduten deuskuen guztian, ez bakarrik bildurra gaiti, ezpada amorea gaiti, eta onerestea gaiti.

Bigarrena, ez inosbere atsakabarik emon.

Irugarrena, Kuidadoa euki eriotza onbat egin da  
ien

*Zeñda bostgarrena?*

Ez inor iltea.

Mandamentu onek agindutendau geure proximoari, ez gatzik egitea, ez iltea, ez eskurik egoztea, ez berba deungarik esatea, ez odiorik, ez bengetako deseorik eukitea, eta ez eskandalurik emotea.

*Zer da eskandalua?*

Berba, edo aziñoe deungenbat, zeñegaz emoten jakon okasiño ta motiboa geure proximoari pekatuan jausteko.

*Zetara obligetan gaituz Mandamentu onek?*

Geure proximoa Serbidu, eta ametara, geure buruak legez; eta berbea, ta agurra ez Ukatutera.

*Ze frutu atera beardogu leziñoe onetarik?*

Lelengo, geure proximoa amau, ta tratau dulzurreagaz.

Bigarrena, apartau auzi, ta kerelletarik, eta deungen Konbersaziñoe, eta Konpaniarik.

Irugarrena, Koleorea datorrenean ixilik egon, eta igaro pazienziagaz proximoen falta, ta injuriak.

Laugarrena, deungaro egina, ez deungaro agaz pagau.

*Zeñda seigarrena?*

Aragizko pekaturik ez egitea.

Mandamentu onek eragotzitendituz pensamentuz, berbaz, eta obrazko pekatu loi guztiak: eta bai pureziaen, eta Kastidadeaen Kontrako bizio, eta indezenziak.

*Zeñzuk dira Orrek?*

Jan, edo edan larregi egitea, edo ase beteak, Komediak, pintura, ta Soñeko indezenteak.

*Ze gauza da persona Kasto, eta garbi bat?*

Da Angeru bat lurrean, eta Jesusa en esposoa.

*Zer egin bear dogu, Kasto, eta garbi izateko?*

Lelengo, euki Modestia andi bat begietan, Soñean, ta Ukututean.

Bigarrena, bota ainbat lasterren Kastidadeaen Kontrako tentaziñoek.

Irugarrena, erregutu Jangoikoari garbi, eta Kasto izateko.

Laugarrena, euki deboziño e andia Ama Birjina Santissimeaen Konzezinoe garbiagaz, eta San Josepegaz.

*Ze frutu atera beardogu leziño e onetarik?*

Lelengo, ez pensau, ez esan, ez enzun, eta ez ekusi Kastidadeaen Kontrako gauzarik.

Bigarrena, al-eginagaz apartau Konpañia, eta lagun deungak ganik.

Irugarrena, Konfesau, eta Komulgau sarri: eta iragarri Konfesoreari bere pekatu, tentaziñoe, eta inklinazinoeak.

*Zeñda Zazpigarrena?*

Ez Ostutea.

Mandamentu onek agindutendau, ez kenduteko, ez eukiteko, eta ez deseetako inoen gauzarik, jabeaen borondateaen Kontra.

*Norzuk dagoz obligauta, baktxari berea biortuten?*

Inoen gauzea daukenak, eta bai lapurrerian, eta proximoaen Kontrako dañuen baten parte izan direanak bere.

*Askoda esatea Konfesoreari, ostu dabela, edo Zer-bait daukala jabeaen borondateaen Kontra?*

Ezta asko esatea, biortuten ezpadeutso ainbat lasterren.

*Mandamentu au ondo gordetako, asko da, inori ez ezer ostutea, eta inoen gauzarik ez eukitea?*

Ezta asko: Noberak daukanerik bere emon beardau, Sokorrietako nezesidadean dagozan pobreak.

*Ze frutu atera beardogu leziñoe onetarik?*

Lelengo, artu Odio mortal bat abariziari, eta Kontentau Jangoikoak emoten dabenagaz.

Bigarrena, inoen gauzagaz, ez Kargurik euki.

Irugarrena, emon bakotxari berea bertati, edo ainbat lasterren.

*Zeñda Zorzigarrena?*

Testimonio falsorik, ez ezartea, eta guzurrik ez esatea.

Mandamentu Onek agindutendau, ez inori falso-testimoniorik eregi, ez egozteko, ez guzurrik esateko, ez murmuretako, ez erraz proximoen Kontra jusgetako.

*Zer da guzurra?*

Gogoaz bestera gauzea esatea.

*Inos guzurrik esan bearda?*

Ez Jauna; bada da guzurra Jangoikoaen Kontra; eta Kastigau daroa aen Majestadeak mundu onetan bere gatx, eta trabaju ikaragarriakaz.

*Zer da murmuraziñoa?*

Esatea deungaro proximoa gaiti, bera aurrean eztagoala.

*Obligazinoerik bago, proximoari fama biortuteko?*

Bai Jauna, eta ainbagarik ezin Salba liteke.

*Zer egin bearda, inor murmuretan dagoanean?*

Eragotzi albadagi, ezpabere beste Konbersaziñoe bat atera, edo joan arik.

*Ze diferenzia dago murmuretan dabena ganik, gustoz enzuten dabena gana?*

Batak dauko Demoniñoa miñean, eta besteak belarrian.

*Zer da juizio temerarioa: edo erraz proximoen Kontra Juzgetea?*

Errazoa bagarik proximoen Kontra egitendan jui-zio deungea.

*Ze frutu atera beardogu leziñoe onetarik?*

Lelengo, ez sekula inori guzurrik ez ino gaiti deungarorik esan.

Bigarrena, berba egin proximoa gaiti geuk gura geunkean legez, berak geugaiti egin leian.

*Zeñda Bederatzigarren mandamentua?*

Proximoen emazterik ez deseetea.

Mandamentu Onek eragotziten dituz purezean, eta Kastidadean Kontrako pensamentu eta deseio loiak.

*Zeñda Amargarrena.*

Besten Ondasunik ez deseetea.

Mandamentu Onek eragotzitendau inoen bidebaga-  
gako azienden deseoa, eta bai Ondasun larregi gura  
izatea bere.

## **ELEXA AMA SANTAKO MANDAMENTUAK DIRA BOST**

Lelengoa Domeka, eta Jaiegunetan meza Oso bat  
enzutea.

Mandamentu Onek aginduten deusku, Meza enzu-  
tera deboziñoa, errespeto, eta atenziñoa andiagaz  
Domeka guztietan, eta bai astebarruko jaietan bere.

*Zeñda Jangoikoari Ofrezidu al-leion gauzarik  
andiena?*

Da mezako Sakrifizio Santua, Zeñetan ofrezietan  
jakon Aita Eternoari Jesu-Kristo Jangoiko, eta Gizon  
egiazkoa, ogia en, eta ardaoa en irudi, edo azidenten  
azpian.

*Zetako ofrezietan jako Sakrifizio Santu au?*

Lelengo, emoterren Jangoikoari, geure Jaun Sobe-  
ranuari legez zor jakon onrea.

Bigarrena, eskatuterren geure pekatuen parkazi-  
ñoa, eta Osteranzean beardogun guztia.

Irugarrena, eskerrak emoterren egin deuskuzan  
mesedeak gaiti.

*Nok ofrezietan dau Sakrifizio au?*

Jesu-Kristo geure Erredentoreak Sazerdoteagaz batera, eta Mezara asistietan daben fielak.

*Zelan meza enzun bearda?*

Atenziñoe, errespeto, eta Debozinoe andiagaz.

*Zer esan lei, meza esatendan artean eta Elexan errespeto baga dagozanak gaiti?*

Onelango fede bagako Kristinauak, eztabela Jangoikoaen esku Santuerarik gauza onik izango, eta bildur izateko da bere maldizinoea etorri ezten euren ganera; añ Kasu gitxi egiten dabelako Jesu-Kristo geure Erredentoreaen bizitza, Eriotza, eta Pasinoe Santuko misterio andiakaz: Zorigestoko onek dagoz Jangoikoaen eskurik itxita legez, eta jentilak baño bere itsuago; bada Onek ikusiko balebe Kristinau askok Elexan egoteko daukeen modua espantau, eta arrituko litzatekez.

*Ze gauza on alkanzetan dabe beardan legez Mezea enzuten dabenak?*

Lelengo Jesu-Kristo geure Jaunak errepartietan deutsez bere Pasiñoe Santuko merezimentuak.

Bigarrena, emoten deutse grazia alkanzetako Aita Eternoa ganik eskatuten dabena.



Irugarrena, dauko kuido espeziala libretako egun atako gatz, eta desgrazietarik.

*Ze frutu atera beardogu leziño e onetarik?*

Lelengo, ainbat Sarrien Meza enzun, Jangoikoak ezarri deigun bere bendizinoe Santua.

Bigarrena, egon elexan errespeto, eta modu andiagaz; bada alan emongo deusku Jangoikoak eskatuten doguna.

*Zeñda bigarrena?*

Urtean beñ edolabere Konfesetea, edo lenago eriotzako peligrurik bada, edo Komulgauko bada.

*Penitenziako Sakramentuan dago Zerdan Konfesi-noea an ikusi bedi. 137.*

*Zeñda Irugarrena?*

Pazko Erresurreziño e koetan Komulgetea.

*Ikusi bedi Sakramentu Komuninoekoa. 149.*

*Zeñda Laugarrena?*

Elexa Santeak aginduten dabenean barau egitea.

Mandamentu onek aginduten dau barau egiteko, Koarta tenporetan, Bijilietan, eta Garizuma guztian, Eta Ez aragirik jateko barikuetan.

*Norzuk dagozan obligauta, barau egiten, eta norzuk ez, Ori Kura Jaunak esando dabe, eta bai norzuk aragia jango daben bere.*

*Zeñda bostgarrena?*

Amarrenak, eta primiziak ondo pagetea.

*Zelan pagau bear dira Amarrenak?*

Emoten dala, arzendan legez, Onerik Ona, adino-nerik adin Ona, eta Txarrerik txarra, Kunpliduko bada mandamentu onek esaten dabenagaz.

*Ze frutu atera beardogu leziño e onetarik?*

Lelengo euki errespeto andia Elexa Santeak aginduten dituzan gauza guztiakaz.

Bigarrena, Mandamentu Santu onek aginduten dabena egin amoreagaz, eta Obedenzia itsuagaz.

*Expliketari dira emen Sakramentu Santuak.*

## **SAKRAMENTUAK**

*Ze gauza dira Sakramentuak?*

Dira Jesu-Kristo geure Jaunak emon niko señaile batzuk aen medioz emoteko guri grazia, eta Birtuteak.

## **BAUTISMOA**

*Zer da Bautismoa?*

Da Jesu-Kristok eginiko Sakramentu bat, Zeñek kenduten daben pekatu Orijinala, eta besterik badago

bere. eta egiten gaituz Kristinau, eta Jangoikoaen seme.

*Zer da, Kristinaua?*

Bateaturik dagoana:

Jesu-Kristo en fede Santuan sinistuten dabena, eta ofrezidurik daukana, bizi izatera bere exenplu, eta Dotrina Santuagaz batera, edo Konforme.

*Zeñda Kristinauaen señailea?*

Krutze santea.

*Zegaiti?*

Dalako Kristo Kruzifikaduaen figurea, Zeñetan erredimidu genduzan.

*Señale au nos egin beardogu?*

Bearren bat asten dogun guztian, tentaziñoen, edo peligruen baten ikusten gareanean, etserik urteten dogunean, Elexan Sarzen gareanean, jaten goazanean, eta Oera etxuten gareanean.

*Krutzea en Señaileak, Zer errepresentetan dau?*

Trinidad Santissimoko, eta geure Erredenzinoeko misterioak.

*Zelan Trinitadeko misterioa?*

Krutzea egitendogunean, iru personak izentauagaz.

*Zelan erredenzinoeko misterioa?*

Krutzea eginagaz; bada an erredimidu genduzan ilten zala gugaiti.

*Bateatuten danari Zetako Sazerdoteak egiten deutso Krutzea bekokian, eta bularrean?*

Bekokian lotsatu ezten Kristinau izateagaz: bularrean barriz Krutzea amau daian.

*Bautismoa baga Salba liteke?*

Ez Jauna, eta bateatu baga ilten direan Señak Doaz linbora, eta eztabe ikusiko inos Jangoikoaen arpegia.

*Bateatuteko Zer egin bear da?*

Ura artu, eta ezarri bateatuten dan personeaen parte prinzipal en batera esaten dala, Ura egozten jakanean. *Nik bateatuten Zaitudaz Aitea en, eta Semea en, eta Espiritu Santua en izenean Amen.*

*Edozeñek bateatu lei?*

Bai Jauna, nezesidadea badago.

*Zetara Obligetan gaituz Bautismoak?*

Satanas en ponpa, eta Obra kaz errenunzietara.

*Zeñzuk dira Satanas en ponpa, eta obrak?*

Munduko banidade, eta pekatuak.

*Ze frutu atera beardogu leziñoen Onetarik?*

Lelengo, Jangoikoari esker andiak emon, bere Bautismo Santua dala mediante, egin gaituzalako Kristiñau.

Bigarrena, bateatu giñeanean egin genduzan promesak barriztau.

Irugarrena, emon berbea aurreranzean bizi izateko bera Serbietan, orretako errenunzietan doguzala munduko ponpa, eta banidadeak.

### **KONFIRMAZIÑOEA**

*Zetako da Sakramentu SantuKonfirmazinoekoa?*

Bautismoan artu genduan fedea, firme iminteko.

*Konfirmau baga Salba liteke?*

Bai Jauna.

*Konfirmaziñoeko Sakramentua artu lei Sarritan?*

Ez beñ baño; bada ezta galduten beñ ariman imintan daben Señalea.

*Konfirmauta dagoanak, ze obligaziñoee dauko?*

Lelengo, beardituz igaro, eta sufridu pazienza, eta biotz onagaz Jangoikoa en bide Santuan, aurkitu, eta topetan direan enbarazu, eta difikultadeak.

Bigarrena, egin beardituz lotsa, ez bildur baga Kristinau egiazko batek egin daroazan gauzak.

*Ze frutu atera beardogu leziñoee onetarik?*

Lelengo, ikasi ondo Sakramentu Santu onen obligazioak.

Bigarrena; errezibidu eztabenak, prestau leenaz, beardan legez errezibietako.

## **PENITENZIA**

*Zetako da Sakramentu Santu Penitenziakoa?*

Bateatu ezkeru eginiko pekatuak parkatuteko.

*Gutziz da bearra konfesetea Salbetako?*

Salbauko bada beardituz konfesau bere pekatuak, edo euki gogoia konfesetako aldagianean,

*Zeinbat gauza beardira konfesiñoe Ona egiteko?*

Bost. 1. Examinea. 2. Dolorea. 3. Propositua. 4. Konfesetea. 5. Satisfazioa.

## **EXAMINA KONZIENZIAKO**

*Zerda Examinea?*

Pekatuak memoriara ekartea.

*Zelan egingo da examinea?*

Lelengo, Jangoikoaen Majestadeari eskatu humildatea gaz, emon deiola grazia, eta argia bere pekatuak idoro, eta ezaututeko, eta aen damu egiazkoa.

Bigarrena, Atera kontua Jangoikoa en legeko Mandamentuetati, eta bost Elexakoetati, ze mandamen-

tuen kontra egindaben pekatu, eta zeinbat bidar, pensamentuz, berbaz, eta obraz, norberen eta besten estadu, eta obligazinoeakaz konforme, eta errazago egiteko akordau, edo gogoratu nondi ibili, eta non egon dan nogaz tratau daben, eta ze inklinazinoe oidaben. Onetako iminten dabela negozio andi baten imini oi dan kontua, eta ardurea.

*Konfesiño e jenerala, nai partikulara egiteko modu erraza dauko iminita euskeraz Aita Agustin Kardaberraz Mistonista zeloso, eta Jakitunak bere exerzizioetako liburu ederrean.*

## **DOLOREA**

*Zer da dolorea?*

Eukitea damua Jangoikoa ofendidu dabelako.

*Zeinbat modutakoa da dolorea?*

Modu bitakoa Kontriziño e, eta atriziño e.

*Zerda kontriziño e?*

Eukitea damua Jangoikoa ofendidu dabelako, izanik nor dan.

*Zer da Atriziño e?*

Eukitea Damua Jangoikoa ofendidu dabelako, pekatua en ezañtasuna gaiti, edo pekatua dala medio

galdu dituzalako zeruko gloriak, eta irabazi infernuko penak.

*Damu, edo Dolore onetarik onena zeñ da?*

Kontrizinoea da askoz ohea Atrizinoea baño; Zegaitize Akto Kontrizinoeko egiazkoa egiten dabena, bertati gelditutenda Jangoikoa en grazian; baia ez atrizinoea egiten dabena Konfesetan eztala. Eta orregaiti pekatu mortalean dagozan bi bata kontriziñoegaz, eta bestea Atrizinoegaz ilgo balira konfesau baga, Kontrizinoea daukana salbauko litzateke, eta Atrizinoea daukana kondenau.

*Asko da Akto Kontrizinoekoa aogaz esatea?*

Ez Jauna, barruko, eta biotzeko dolore, eta Damua euki bearda, izango bada egiazkoa.

*Pekatuén Damua artuteko, zer ekarri bear dogu gogora?*

Lelengo Jangoiko Majestade infinitoan ontasun pare bagakoa, zeñ menospreziau, eta ofendidu dogun.

Bigarrena, aen Majestadeak egin deuskuzan mesede eta benefizio andiak.

Irugarrena, Jesu-Kristo geure Jauna en Pasiñoeko pena, eta trabajuak.



Laugarrena, infernuko pena betikoen kon siderazi-  
ño ea.

Bostgarrena, pekatua en ezañtasuna.

*Zer da Propositua?*

Da biotzeko gogo, edo determinaziño e firme bat,  
ez geiago pekatu rik egiteko, eta pekatuen okasinoerik  
apartetako.

*Pekatu egiteko bide, edo okasiñoerik apartetan  
eztanak, aldaiala, beardan propositu egiazkoa bauko?*

Ez Jauna, uste izan arrenbere baukala, eztauko.

## **KONFESINOEA**

*Zer da Konfesiño ea?*

Esatea Sazerdoteari bere pekatu guztiak bat bere  
itxi baga Umildadeagaz, Doloreagaz, eta garbiro,  
euren Zirkunstanzia guztiakaz.

*Konfesino ean inor izentau bear da?*

Ez Jauna; bada ezta ori norbera akusetea, ezpada  
besten pekatuak agertutea.

*Pekatu benialak Konfesau bear dira?*

Ondo da Konfesetea, baia eztago ligazinoerik.

*Pekatu mortal bat, edogeiago Konfesetea aztuten  
baiako, Orregaiti Konfesinoea Ona izango da?*

Bai Jauna bere erruz ezpada; baia eukiko dau Obligaziñoa, esateko Urren Konfesetara Doeanean.

*Pekatu Mortal en bat lotsaz Konfesau bagarik itxiten dabena Salba liteke beste penitenzienbat, edo Obra Onen bat eginagaz?*

Ezin Salba liteke Santu guztiak baño penitenzia geiago eginta bere.

*Lotsa andiko, eta ikaragarritzko pekatuz beterik Kristinau bat balego, eukiko leuke erremedioa Erromara joan bago?*

Bai Jauna, bere errian edo Zeinbere Konfesorek emongo deutso guztien parkaziñoa.

*Konfesoreak Konfesinoetan enzuniko gauzea inori esan leio: edo Salatu lei penitentea Inkisiziño era?*

Ezin inori ezer esan leio, bizirik erreko balebe bere.

*Beraz eztago atxakiarte, pekatuak Konfesau bago isteko?*

Ez Jauna, ta Ondo Konfesetan eztana bere erruz, Kondenauko da erremedio bagarik.

*Konfesetara Orduan, Zer egin bear da?*

Jarri belauniko Sazerdotea en oñetan, Umildade, ta modu andiagaz, Zeñatu, ta esan Konfesiñoa. Ni

bekatariau & K. eta esan bere pekatu guztiak bat bere itxi bagarik.

*Pekatuak Konfesau ezkeru, Zer egin bear da?*

Enzun, ta aditu atenziñoea gaz Konfesoreak emoten dituzan Konsejuak, eta egin Akto Kontrizino ekoa.

*Konfesorea en Oñetarik jagi ezkeru Zer egin bear da?*

Lelengo, erretirau leku On batera; Jangoikoari graziak emoten, bere pekatuak parkatu deutzazalako.

Bigarrena, barriaztu, Konfesiñoean, eta leenago egindituzan proposituak.

Irugarrena, Konfesoreak emon deutzazan Konsejuak gogoratu. Eta penitentzia egiazkoa egin.

*Ze frutu atera beardogu leziñoe onetarik?*

Lelengo Examinau Konzianzia, eta begiratu ondo, ea leenagoko Konfesinoeak onak izan ete direan.

Bigarrena, Onak izan ezpadira barriaztu, edo Konfesiñoe jeneral bat egin.

Irugarrena, esan Konfesoreari bere pekatu guztiak, Umildadeagaz, Osorik, laster, eta erretorika бага.

## **SATISFAZIÑOEA**

*Zer da satisfaziñoea?*

Pagetea penitenziako Obra kaz pekatuak gaiti Zor-  
dan penea.

*Zetan dago satisfazinoe au?*

Konfesoreak emoniko penitenzia artu, ta Ondo  
Kunplietean.

*Penitenzia artuten dabenak Kunplietako gogoaz,  
egiten dau Konfesinoe Ona, gero Kunplietan  
ezpadau?*

Bai Jauna; baia Kunplidu bagarik itxi eban peniten-  
zia, andia edo grabea bazan egingo dau pekatu mor-  
tala; eta bearko dau Konfesau Urrengo Konfesinoean.

*Ze frutu atera bear dogu leziñoen onetarik?*

Lelengo Konfesinoean ezarririko penitenzia Kunpli-  
du ainbat lasterren.

Bigarrena, azaz ganeti bere, artu norberak beste  
penitenziaen bat, aplaketako Jangoikoaen aserrea,  
eta pekatuak gaiti obeto satisfazietako.

## **KOMUNIÑOEA**

*Zer dago altarako Sakramentu Santuan?*

Dago Jesu-Kristo Jangoiko, ta Gizon egiazkoa,  
zeruan dagoana legez.

*Zer dago Ostian Konsagradu baño leenago.*

Ogi puskabat.

*Eta Zerdago Konsagradu ezkeru?*

Dago Jesu Kristoen gorputza, bizirik, eta bat eginik, edo unidurik Jangoikoen semea en personeagaz, dago odola bere, arimea, Jangoikotasuna, eta Trinidadeko iru personak.

*Zer dago Kalizan Konsagradu baño leenago?*

Ardaoa ur puskatxu bateagaz.

*Eta Konsagradu ezkeru zerdago?*

Jesu Kristoen odola, eta dagoana legez bat eginik Gorputzagaz, dago Gorputza bere, Arimea, Jangoikotasuna, eta iru Personak.

*Nos iminten da Jesu Kristo Ostian, eta Kalizan?*

Sazerdoteak Mezatan berba Konsagrazinoekoak esaten dituzanean.

*Eta berba mirarizko Onek esan ezkeru, bago Ostian Ogirik, edo Kalizan ardaorik?*

Ez Jauna; bada len ogi Zana egiten da Kristo en Gorputz: eta len ardaoa Zana Kristo en odol, eta eztago Ostian ogirik, ez Kalizan ardaorik, Ogia en eta ardaoaen irudia baño.

*Sazerdoteak Ostia erdi bi egiten dabenean, erdiratuten da Kristo?*

Ez Jauna; bada añ osorik dago alde batean, Zeñ bestean, eta bardin Ostia Txikarrean, nai Ostiaen parte rik Txikarrean, Zeñ andian.

*Pekatu mortalean Komulgetan danak errezibietan dau Kristo?*

Bai Jauna, baia deun.

*Ze pekatu egiten dau alan Komulgetan danak?*

Judasen pekatua; Sakrilejio ikaragarri bat; bada jaten, eta irunsiten dau Jangoikoa en Juizioa.

*Nos egin eban Jesu-Kristok Sakramentu Santu au?*

Egen Sartu gabeen bere Apostoluen aurrean.

*Zetako?*

Izateko geure arimen mantenimentua: eta adoraugengian Sakramentu Santu onetan.

Zer dan Mezea Elexako *Lelengo mandamentuan esan da.*

*Ondo Komulgetako Zer bearda?*

Lelengo, Zer errezibietan dan jakitea.

Bigarrena, barau naturalean egotea.

Irugarrena, Jangoikoaen grazian egotea.

*Zer da barau naturala?*

Samati estamangura ezerbere ez igarotea, gaber-diko amabietarik, eta Komulgau artera.

*Zelan joan bear da Komulgetara?*

Umildade, Konfianza eta debozinoe andiagaz.

*Zelan egingo dozu Umildadeko Akto bat Komulgatara Zoazanean?*

Neure Jesus Ona, sinisetandot firmemente Zagozala Sakramentu Santu adora garri Onetan, adoretan zaitudaz neure biotzeko erreberenzia, eta Umildade guztiagaz.

*Egizu Umildadeko, eta konfianzako Akto bat?*

Neure Jesus maitea, Zeure Oñetan etxunik, Konfisetan dot, ez nasala digno Zeure Majestadea errezi-bietako; baia alanbere daukat Konfianza andi bat, emongo deustazula Zeure grazia. *Zer egin bear da Komulgau ezkeror?*

Lelengo adoraue geure gorputzetan dagoan Jaun andi au.

Bigarrena, emon graziak, egin deuskuzan mesedeak gaiti.

Irugarrena, fabore, ta mesedeak eskatu.

Laugarrena geu garean legez, sentidu, eta potentzia guztiakaz bere eskuetan Ofrezidu.

*Komulgau ezkeror egizuz lau akto Onek?*

Neure Jaun Soberanua! nik adoretan Zaitudaz Angeru, eta Santu guztiakaz: nik ezaututen Zaitudaz

neure Jangoiko, eta Salbadore zat, eta eztot gura bizi aurreranzean Zeu bagarik.

Neure Jangoiko Maitea! Zer emon al-neizu nik Zuri, egin deustazun mesede, eta benefizio andi Onegaiti! biziko naz onik aurrera ezaturik Zeure fabore, ta benefizio andiak.

Neure Jesus miserikordiosoa, parkatu egidazuz neure kulpa eta pekatuak, eta ez egizu permitidu Zeuganik ni apartetea, bete egizu neure arimea, Zeure graziaz eta gorde nagizu gatx guztietari.

Neure Jesus amablea! Ofrezietan deutsudaz neure pensamentu, berba, obra, eta aziñoe guztiak, neure biotza, arimea eta gorputza: ara emen neu guztiau Zeurea, artu nagizu, Salba nagizu; bada eztaukat beste deseorik ezpada Zeure izatea Zeu ametea, eta Zeu serbiete sekula beti Amen.

*Jangoikoari graziak emon ezkerro zer egin bearda?*

Biotzeko gogo, edo erresoluzinoe firmebat atera, bere defekto, edo faltarik prinzipalenak emendetako: bere bizio prinzipal, edo agintariari gerra egiteko: bizitza barribat asiteko, eta bizitza barri atan irauteko.

## **OLEAZIÑOEA**

*Zetako da Sakramentu Santu Oleaziñoekoa?*



Iru gauzatakako.

Lelengo bizitza geisto igaroa en errastu ta sus-traiak kenzeko.

Bigarrena, arimeari indarra emoteko demoniñoen tentaziñoen kontra.

Irugarrena, gorputzari osasuna emoteko konbe-nietan bada.

*Oleaziñoea artu bagarik salba liteke?*

Bai Jauna; baia geiso peligruzkoa daukala, itxi balei menosprezios, egingo leuke pekatu mortala.

*Zetako Sazerdoteak orio Santuagaz igorzi edo unjietan deutzaz geisoari begiak, belarriak, suurra, aoa, eskuak, eta oñak?*

Bere sentidu guztiakaz egin dituzan pekatu guz-tien parkaziñoea, Jangoikoa ganik alkanzetako.

*Ze disposiziñoe bearda Sakramentu Santu au erre-zibietako?*

Lelengo, ezelanbere albadedi bearda konfesau.

Bigarrena, deseau, eta eskatu atarako badago.

Irugarrena, errezibidu bere pekatuen damuagaz, fede biziagaz, konfianza Osoagaz, iminten dabela bere burua Jangoikoa en eskuetan.

Laugarrena, Sazerdoteak unzinoeak egiten ditu-zan artean, gesoak bere akto kontrizinoekoa egin,

sentidu bakotxagaz egindituzan pekatuen parkazino-  
ea alkanzetako.

*Ze frutu atera beardogu leziño e onetarik?*

Lelengo, ez egon agoniñakoa jo artean begira,  
Sakramentu au errezibietako.

Bigarrena, prokurau, gesoi denporaz emon  
dakien.

Irugarrena, gesoa peligruzkoa danean inok esan  
bagarik noberak eskatu.

ORDEA

*Zetako da Sakramentu Santu Ordeakoa?*

Ordenduteko, eta Konsagretako Elexako ministro  
dignoak, Zelan direan Sazerdoteak, Diakonoak, eta  
besteak.

MATRIMONIOA

*Zetako da Sakramentu Santu Matrimoniokoa?*

Ezkonduteko, eta ezkonduai grazia emoteko,  
bakean bizi ditezan, eta seme alabak Zerurako azi  
daiezan.

*Grazia geiago emoten dau?*

Bai Jauna, eroan eragiten dituz pazienziatan esta-  
du Onek berez dakazan difikultade, eta trabajuak, eta  
fidelidadea gordetako.

*Zelan disponidu bear da, Sakramentu au errezibietako?*

Lelengo, itundu, edo Konsutau bere Konfesorea-gaz, eta gurasoakaz eta begiratu Ondo, estadu a Konbenietan bajako, edo jagokanez.

Bigarrena, Jangoikoaen grazian egon: eta prestau leenaz oraziño eagaz barauagaz; eta limosneagaz.

Irugarrena, ez permitidu ezkonzetan Oidirean bulla, danza, eta jan edanak.

Laugarrena, ikasi leenago ezkonduen obligazinoeak, eta euki intenzinoe garbi bat, Jangoikoak emoten daben frutua Zerurako aziteko.

*Ze frutu atera beardogu leziñoen onetarik?*

Lelengo, tratau Matrimoniao errespetoagaz, dala-ko Jesu-Kristok eginiko Sakramentua.

Bigarrena, ez ezkondu ezpadagoz bear direan disposizinoeak.

Irugarrena, bizi Kristinau onak legez Jangoikoaen bildurtasunean, Katidade, bake, uniñoen, amore, pazienza, eta fidelidade Sakramentu Santu onek aginduten dabenean.

*Kalaorra, eta Kalzadako Obispo Jaun Don Andres Porrás, eta Temes ek agindurik deutse bere Obispau-*

*ko Kura Jaun guztiai, esplikau daiezala Elexan ezkonzako inpedimentu onek edolabere illean beñ.*

## **ONESTIDADEKO AIDETASUNA**

Onestidateko aidetasun au dator ezkonzako berbea emonetati, eta alan persona batek emoten badeutso beste bati ezkonzeko berbea, egiten da aide, edo senide persona aen aide ta senideakaz lelengo graduan, edo oñean; eta alan gizon batek emon badeutso ezkonzeko berbea andra bati ezin ezkondu leite andra onen aizeagaz, ez Amagaz, eta ez alabeagaz bere. Eta lomesmo, ezin ezkonduko da andra au gizon onen anajeagaz, ez aitagaz, ez semeagaz; bada onek dira lelengo oñekoak eta ezkonzen badira dispensa baga, eztau ezkonzeak balio, ta biziko dira pekatu mortalean.

## **KOÑATEZEA**

Seigarren mandamentua en kontra aragizko pekatu obrazkotati datorren aidetasuna, edo koñatezea elduten da bigarren oñera eta alan gizon batek euki badau zer egina (obrazkoa) andra, edo neskatilla bategaz, ezin ezkondu leite neskatilla, edo andra onen amagaz, ez aizeagaz, ez alabeagaz, ez lengusineagaz

ez izekoagaz, eta ez lobeagaz bere, eta ezkonzen bada lelengo, edo bigarren oñekogaz eztau ezkonzeak balio.

*Alargun bat ezkondu leite bere emazte, edo senar difuntua en aide, edo senideen bategaz?*

Senitasuna elduten bada laugarren gradu giño ezin ezkondu leiteke, bada daukee Koñatezea, eta au elduten da (ezkonzea ona izanik) Laugarren oñera.

Guztiak dakiena da barriz ezin ezkondu leitezana persona bi alkarregaz, dispensa бага, badira biak senide karnalak laugarren oñean; eta ezkonduko balira dispensa бага, uste onagaz izan arren bere, ez leuke ezkonzeak balioko.

*Norbait ezkonduko baliz, ezkonzeko berbea emonda deutsan baten amagaz, edo aizteagaz, edo alabeagaz: edo bai berak pekatu egin daben personea en bigarren oñeko, edo gradukogaz (uste onagaz) ezkonzea ona izango lizateke?*

Ez Jauna; bada noberak ondo ezkonzen dala uste izan arren bere, eztau uste onak ezkonzako inpedimentua kenzen. Egia da uste onagaz ezkonzen danak pekaturik egiten eztabena; baia ezkonzeak eztau balio. Eta orretarako itundu, edo konsultau bear dau,

alangorik jazo jakonak, Konfesore jakitun prudente bategaz.

*Beste inpedimentuak eztira emen iminten, eta onek bere esplikauko dituez klaruago Kura Jaunak; bada da guztiz bearra, onek ondo jakitea, eta Elexan guztiai klaru esatea.*

**JESU-KRISTO GEURE JAUNA EN PASINOEKO  
MISTERIO AK ASTE SANTUKO EGUNETAN.  
ETA BIDE BATEZ ESATENDA  
GARIZUMEA ZETAKO EGIN ZAN.**

*Zetako Elexa Santeak egin eban Garizumea?*

Jesu-Kristo geure Jaunak egin eban berrogei eguneko baraua onretarren, eta prestau gendizan Pazkoetan ondo Komulgetako.

*Zer egin bear da Garizuman?*

Lelengo izangoda gauzarik onena garizumea en asieran, Konfesau, eta Komulgetea.

Bigarrena, igaro, osasuneko egun Santu onek dibersiñoe askotarik (onak izanarren bere) apartetan gareala: bestetan baño limosna geiago egiten dogula, mortifikazinoean, barauan eta oraziñoean denpora geiago gastetan dogula, Doktrina, eta sermoetara asistietan dogula.

*Zetako estalduten dira altarak, eta Santuak Pasiñoeko astean.*

Erakusterren guri Elexa Santea en tristezea, Jesu-Kristo en eriotzan.

*Garizumea en akabuko asteari, Zetako esaten deitsazu Aste Santua?*

Aste atan Jesu-Kristo geure Jaunak obrau zituzan misterio Santuak gaiti.

*Zegaiti Erramuko domekan erabilten dozuz prozesiñoan erramuak eskuetan?*

Jesu-Kristok bere Pasiño Santua baño sei egunez leenago Jerusalem en egin eban Sarzaiera Santua en gomutan, edo memoriam.

*Eguazten Santu egunean, Zer igaro zan?*

Egun onetan Judas traidoreak Saldu eutsen Judeguai geure erredentorea, ogeta amar erreal ean.

*Egen Santu egunean, Zer igaro zan?*

Afaldu eban Jesu-Kristok bere Apostoluakaz; garbitu eutsezan Oñak: eta egin eban Santissimo Sakramentu altarakoa.

*Nos preso artu eben?*

Gau onetan bertan, Jesemaniko Ortuan Oraziñoan egoala eldu zirean judeguak Judas aurrerengo zala, eta loturik lapur bat legez eroan eben Anas, eta

Kaifas en Etsera; Emen ukatu eban San Pedrok iru bidar: bere Apostoluak igez egin eben, itxirik judegen eskuetan; eta gau ontan igaro zituzan al zirean pena, eta trabaju guztiak, blasfemia asko esaten eutsezala bere izen Santua en kontra, eta estaldurik bere arpegia, emoten eutsezan belarrendoko andiak.

*Zer igaro zan Bariku Santu egunean?*

Egun onetan txito goxeti eroan eben Pilatosen aurrera, andi Erodes erregea gana, zeñek artu eban zorotzat, eta biortu eban, Soñeko zuribat janzita. Pilatosegana, onek agindu eban azotau leiela, eta soldaduak emon eutsezan bost milla ta geiago azote, krueldade andiagaz.

*Azotau ezkerro zeregin eben geure Salbadoreagaz?*

Janzi eutsen soñeko gorri Zantar bat, imini eutsen aranzazko koroa bat buruan, Kañabera bat eskuan: eta jarrizik belauniko bere aurrean, egiten eutsezan burla andiak, botaten eutsezala bere arpegira Txistu ta gorro asko. Eta gero emon eban Pilatosek bere kontra ilteko sententzia.

*Pilatosek sententzia au emon ezkerro, zer egin eben judeguak?*



Imini eutsen lepoan Krutze astunbat, eroan leian Kalbarioko mendira. An Elduta billostu eben eta josirik krutzean lapur bi en erdian, irugarren orduan ilzan.

*Kristo Krutzean egon zan iru ordu onetan, zer igarozan?*

Eguzkia ilundu zan, eta arriak bata besteñ kontra ausizirean, luurra ikaratutenzala, eta Kriatura guztiak sentidu eben Jesu-Kristoen eriotzea.

*Kristo Krutzean il ezkeru Zer jazozan?*

Soldadu batek igaro eutsan bere bularra lanza bategaz, eta eridarik emoeban odola, ta ura. Josepe, ta Nikodemus ek eratsi eben Krutzetik, eta imini eben bere Ama en alzoan, gero enterrau eben, izara Zuri bategaz Mestidu, edo amorta jauta Sepultura barri baten.

Ikusi bedi Laugarren *Artikulua 67*.

*Zer egiten dau Elexeak zapatu Santuz?*

Ura en bedeñkazinoea, eta beste gauza asko guztiak misterioz beteak.

*Aste Santua ondo igaroteko, zer egin beardogu?*

Lelengo, barau egin, eta mortifikau geure gorputkak bestetan baño geiago.

Bigarrena, asistidu deboziño e andiagaz ofizio Santuetara.

Irugarrena, Krutzeak bisitau kontenpletan dogula  
gu gaiti, ze trabajuak igaro zituzan geure Erredento-  
reak, eta euki geure pekatuen damu andia, izan dire-  
lako kausea Jesu-Kristok añbeste igaroteko.

Ezta edegiten  
Zeruko a terik,  
Ezpada Birjineaen  
deboziñoerik.

Eztago zeruetan  
añ izar argirik  
Birjina Maria  
berori lakorik.

Eguzkia bera  
bere aurreti  
ilundurik doa  
argi bagarik.

Irargia Oñetan  
dauko geldirik  
ezin arpegira  
begiraturik.

Eztau inos urten  
Jauna en eskurik  
beste kriaturak  
bera langorik.

Sortuta jaiozan  
beti garbirik  
pekatua urruti  
berorreganik.

Ezin litzateke  
zeure Maitea  
a serre dabenak  
zeure semea.

Zeurea eztanak  
alper alperrik  
espera lezake  
salbaziñoerik.

Berorrek ezpadauko  
neure errukirik  
eztago niretzat

erremediorik.

Birjina Mariak  
Eskua emonik  
seguro urtengodot  
mundu onetarik.

## **MEZA ERAZOTEKO MODUA**

*Sazerdoteak.* In nomine Patris, &c.

Erazotendabenak. Ad Deum qui lætificat iuventem mean.

S. Iudica me Deus, &c. E. Quia tu es Deus fortitudo mea, quare me repulisti, & quare tristis incedo dum affligit me inimicus.

S. Emitte lucem tuam, &c.

E. Et introibo ad Altare Dei, ad Deum qui latificat iuventutem meam.

S. Confitebortibi, &c. E. Spera in Deo quoniam adhuc cor fitebor illi salutare vultus mei, & Deus meus.

S. Gloria Patri, &c. E. Sicut erat in principio, & nunc & semper, & in sæcula sæculorun. Amen.

S. Introibo, &c. E. Ad Deum qui lætificat iuventutem meam.

S. Adiutorium, &c. E. Qui fecit Cœlum, & terram.

S. Confiteor, &c. E. Misereatur tui omnipotens Deus, & dimissis peccatis tuis perducatur te ad vitam æternam.

S. Amen. E. Confiteor Deo onnipotenti, Beatæ Mariæ semper Virgini, Beato Michaeli Archangelo, Beato Ioanni Baptistæ, Sanctis Apostolis Petro, & Paulo, & beato N. omnibus Sanctis, & tibi Pater, quia peccavi nimis cogitatione verbo, & opere, mea culpa, mea culpa, mea maxima culpa. Ideo precor Beatam Mariam semper Virginem, Beatum Michaellem Archangelum, Beatum Ioannem Baptistam, Sanctos Apostolos, Petrum, & Paulum, & Beatum N. omnes Sanctos, & te Pater orare pro me ad Dominum Deum nostrum.

S. Misereatur vestri, &c. E. Amen.

S. Indulgentiam, &c. E. Amen.

S. Deus tu, &c. E. Et plebs tua lætabitur in te.

S. Ostende nobis, &c. E. Et salutare tuum da nobis.

S. Domine exaudi, &c. E. Et clamor meus ad te veniat.

S. Dominus, &c. E. Et cum Spiritu tuo.

S. Kyrie eleyson. E. Kyrie eleison.

S. Kyrie eleyson. E. Christe eleison. S. Christe eleison. E. Christe eleison. S. Kyrie eleison. E. Kyrie eleison. S. Kyrie eleison.

### ***Epistolea akabauta esatenda***

Deo gratias. S. Sequentia Sancti Evangelii secundum, &c. E. Gloria tibi Domiae.

### ***Ebajelioa akabauta esatenda***

Lans tibi Christe.

S. Orate Fratres. E. Suscipiat Dominus Sacrificium de manibus tuis ad laudem, & gloriam Nominis fui, ad utilitatem quoque nostram totiusque Ecclesia sua Sancte. S. Sursum corda. E. Habemus ad Dominum. S. Gratias agamus, &c. E. Dignum, & iustum est.

S. Et ne nos, &c. E. Sed libera nos a malo. S. Pax Domini, &c. E. Et cum spiritu tuo. S. Ite Missa est, & benedicamus Domino. E. Deo gratias. *Evangelioa akabauta esatenda*. Deo gratias.

### ***Maria Santissimaren Letania***

Kyrie eleyson.

Christe eleyson.

Kyrie eleyson.

Christe audi nos.

Christe exaudi nos.

Pater de Cœlis Deus. Miserere nobis. Fili Redemptor Mundi Deus. Mis. nob. Spiritus Sancte Deus. Mis. nob. Sacra Trinitas unus Deus. Mis. Sacra Maria. Ora. Sacata Dei Genitrix. Sacra Virgo Virginum. Mater Christi. Mater Divinæ Gratia. Mater Purissima Mater Castissima. Mater Inviolata. Mater Intemerata. Mater Amabilis. Mater Admirabilis. Mater Creatoris. Mater Salvatoris. Virgo Prudentissima. Virgo Veneranda. Virgo Predicanda. Virgo Potens. Virgo Clemens. Virgo Fidelis. Speculum Justitia. Sedes Sapientia. Causa nostra latitia. Vas Spirituale. Vas Honorabile. Vas Insigne Devotiones. Rosa Mystica. Turris Davidica. Turris Eburnea. Domus Aurea. Fœderis Arca. Janua Cœli. Stella Matutina. Salus Infirmorum. Refugium Peccatorum. Consolatrix Afflictorum. Auxiliu Christianorum. Regina Angelorum. Regina Patriarcharu. Regina Prophetarum. Regina Apostolorum. Regina Martyrum. Regina Consessorum. Regina Virginum. Regina Sanctorum Omnium. V. Agnus Dei, qui tollis peccata mundi. R. Parce nobis Domine. Y. Agnus Dei, qui tollis peccata mundi. R. Exaudi nos Domine. V. Agnus Dei, qui tollis peccata mundi. R. Miserere nobis. V. Ora pro

nobis Sancta Dei Genitrix. R. Ut digni essiciamur pro-  
missionibus Christi.

## OREMUS

Gratiam tuam, quæsumus Domine, mentibus  
Domine, mentibus nostris infunde, ut qui Angelo nun-  
ciante Christi Filii tui Incarnationem copuovimus, per  
Passionem eius, & Crucem ad Resurrectionis Gloriam  
perducamur. Percumdem Christum Dominum nos-  
trum, Amen.

## ABISUA

*Gava, Javea, Davena, Evan, Even, &c.* Erri askotan  
esatendira *V.* agaz beste batzuetan *b.* agaz emen  
eskribidu dira *V.* agaz, *Eva:* eta *Ave,* legez; bada alan  
bakotxak bere erriko usura esango dau, batzuk *Gava,*  
*Javea, Davena, &c.* beste batuak *Gaba, Jabea, Dabe-*  
*na, &c.*

*Jangoikoa, Jesus, Jabea, Jarri, Janzi, &c.* eskribidu  
dira *J.* Agaz bada batzuk esaten dabe *Jangoikoa, Iesus,*  
*labea, &c.* eta *J.* agaz, nai batera, nai bestere esango  
da.



Izan arren barriz euskera augeien Bizkaian usetan dana, eta Bizkaitar guztiak erraz irakurri, eta entendi-duko dabena, alanbere erri guztietako modura, eta guztien gustora onelango liburu txikar baten ezin eskribidu lei.

Kredoan, *Espirituaen*, eta *sinisetandot Espiritua-gan*, diñoan lekuan irakurri bear da *Espiritu Santua en* eta *sinisetandot Espiritu Santua gan*, bada hau Inpresoreaen faltea izan da.

Letra batzuk oker: andiak bear direan lekuan Txikarrak: Txikarren lekuan andiak: berba bat dana, erdi bian: bi direanak, baten moldean urten dabe; baia Onelango faltak irakurten dabenak artez esango dituz.

J. g. g. b. A. S. e. A. p. i. g. A.